




Emakumeak eta zientziak

Lau ahots goi postuetako
diskriminazioa
ilustratzeko



- **Larrun** Jorge del Cura, Torturaren prebentziorako Espainiako koordinakundea
- **Iñaki Uribe**, HABEko zuzendaria «HABEn ez da inoiz plan estrategikorik egin»
- **Urban Sketchers** Bat-bateko marrazkilariak batu dituen mugimendua
- **Ramon Agirre** «Telebistako euskarazko fikzioa hutsaren hurrena da; *Goenkale* da telesail bakarra»
- **Net Hurbil** Gerra, geneetan ez daramagun asmakizuna



*sakelako telefonoetan
nahi duzun lekuan*



**Mugikorretarako gune
egokituari funtzio berriak
gehitu dizkiogu:**

BERRIAK: Aktualitateak eman duena egunez egun jarraitzeko aukera duzu.
ASTEKARIA + ARTXIBOA: Azken hamarkadan argitaratu diren astekari guztiak osorik irakurgai.

Berrikuntzak:

MULTIMEDIA: Beranduegi Telebistako saio guztiak, bideoak, diaporamak, dokumentalak, film laburrak, hitzaldiak... Guztira 600 lanetik gora.

SARE SOZIALETARA loturak eta edozein albiste, artikulua edo multimedia elementutan zure iruzkinak utzi eta besteenak irakurtzeko aukera.

DISEINU BERRITUA erabilterrezagoa izan dadin gunea eta irakurgarriagoa izan daitezen testuak.

PLATAFORMA gehiagotan kontsultagarri: iPhone, Android, Symbian, WindowsPhone eta Samsung Bada.

Proba ezazu mugikorretarako egokitutako webgunea
m.argia.com





Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



• **NON ZER** •

2012ko apirilaren 1a, 2.317. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Laura Mintegi:** «Bolognak ekoizle izaten irakasten du, ez pentsatzen». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Emakumeak eta zientziak.** Kristalezko sabaiak mugatuta. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 5

Pertsonaia

- **Ramon Agirre:** «Guk ere gure errelatoa fikzioaren bidez agertzen hasi behar genuke». SUSTRAI COLINA / 12

Gaiak

- **EHUko pankartako irakasleak.** Amaierarik gabeko tunelean. UNAI BREA / 17
- **Abasolo auzia.** Indultuak zabalduetako zauriak. MARIA GONZALEZ GOROSARRI / 18

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 21
- **Ttakun (h)errenka** Gure porrota. UXUE APAOLAZA / 22
- **M-29 eta gehiago.** MIKEL ZURBANO / 23
- **Hiruko txikian** Bildu. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Koloreak paretan.** ENEKO OLASAGASTI / 24
- **Txandan** Erdaldunen esperoan. IGOR ESTANKONA / 24
- **Zirtak** Pazko-goiza. JOSE INAZIO BASTERRETXE / 25
- **Bertso berriak** Konplize ditut eta... UXUE ALBERDI / 26

Erdiko kaiera

- **Urban sketchers.** Mundua koadernoan kabitzen da. GORKA BEREZIARTUA / 27
- **Liburuak** IGOR ESTANKONA / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA / 33
- **lhesi Usurbil (Gipuzkoa).** Zaharrak berri. OLAIA RAZKIN / 34
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 36
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURA / 38
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 39
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

Termometroa

- **Iñaki Uribe Burgoa, HABEko zuzendaria:** «HABE fosilizatuta bezala zegoen». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 41
- **Euroa.** Ba al du desagertzeko arriskurik? DANIEL UDALAITZ / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** Gerra ez dago gizakion geneetan, 10.000 urte ditu. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- Normalkuntzaren ARGITZALAK. IÑAKI MARTINEZ DE LUNA / 50



“Bolognak ekoizle izaten irakasten du, ez pentsatzen”

Laura Mintegi

Sautrela kentzeak ez du idazleak desagertu direnik esan nahi.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Esadazu Madrilen erabakitzen dela Euskal Herrian irakurtzen duguna...

Bai, eta ez inposatzen digutelako, mentalki kolonizatuta gaudelako baizik. Labela etxetik kanpo eskuratzek txeko irizpide falta uzten du agerian. Gutako inork ezin al dio prestigiorik eman atzerriari?

Aizu, hemen Euskadi Sariak dauzkagu.

Euskadi Sariak egin behar ez denaren paradigma dira. Botereak ez duela euskal kulturaren sinisten baieztatzen dute. Noiz ulertuko dute politikariek makina-erremintako ekoizleen partez sortzaileak eraman behar dituztela eurekin hegazkinean?

Hasi gara. Orain ere politikarien errua...

Ignorantzia absolutuak mesfidantza eta uaxtea dakar, eta ezagutzen ez gaituztenez, hiritar gisa daukagun fazeta politikoarengatik epaitzen gaituzte.

Zure fazeta politikoaz jabetzeko ez dago CIA-koa izan beharrik!

Aspaldi esan zidaten: “Emakumea zara, ez zara gipuzkoarra, eta politikoki markatuta zaude. Badakizu ez zarela sekula kanona izango, ezta?”. Politikarena asumitzen dut, gipuzkoartasunarena konpondu daiteke, baina emakumea izatearena? Injustizia itze-la da.

Bada idazle emakumez osatutako mahai-ingurua iragartzen duen kartelaren aurrean, soluzioa arazoa baino okerragoa dela dioenik.

Nik boladak izaten ditut, penduluak mutur batetik bestera narama. Hori bai, beti nahiago izan dut euskaraz edozeri buruz hitz egin, euskarari buruz gazteleraz aritzea baino. Hemen gauza bera.

Lasai, Euskal PEN klubak salbatuko gaitu!

PEN kluba erakunde horizontala da eta erreferentzialtasuna ez du estatuak ematen. Badakizu munduko PEN klubean espainolak baino eza-gunagoak garelako eta eragin handiagoa dugula?

Euskal PEN klubeko lehendakaria unibertsitatearekin oso kritikoa den unibertsitateko irakaslea delako izango da hori.

Ikasleei beti esaten diet ezer gutxi topatuko dutela hemen. Zer uzten dizu unibertsitateak zabaldutako leiho batzuk, flash zenbait, eta bizitza osorako adiskideren bat ez bada?

Bologna!

Bolognak ekoizle izaten irakasten du, ez pentsatzen. Baditu gauza onak, baina ezin liteke hezkuntza pertsonalizatuagoa eman irakasle eta baliabide gutxiagorekin. Alde horretatik, iruzur ikaragarria da Bologna deitzea Bologna ez den honi. ■



Emakumeak eta zientziak

Kristalezko sabaiak mugatuta

Emakumeak alde batetik, eta zientzia, teknologia edo ikerkuntza bestetik. Aparteko bi mundu izan dira duela gutxi arte, eta oraindik ere hala moduan ageri dira, jardun horietako goi postuetan errepasoa eginda.

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA

KRISTALEZKO SABAI sonatua zer-nolakoa den, zientziei dagokienez. Zertan den emakumei goi-karguetara heltzea galarazten dien oztopo ikusezin hori teknologiaz, ikerketaz, berrikuntzaz edota karre-
ra akademiko zientifikoez ari garenean. Horixe da, lerrootara ekarri nahi izan dudana gaia. Eta, zintzoki esanda, kristalezko sabai horrek blindajea makaltzen hasia zuela uste nuen nik, gaiari heldu aurretik. Azken aldion egin zaion pitzadurak —unibertsitateetako geletan, salbu eta ingeniartzetan eta matematika eta konputazioan, gehiago dira emakumeak gizonezkoak baino— urte gutxitan lehertuko duela; ikasle horiek lan munduaren eta esparru akademikoaren jabe egin ahala. Tamalez, ez dirudi horren sinplea denik.

Begidara azkar bat zifrei


Helsinki Group-ek Europako Batzordearen enkarguz argitaratzen duen *She Figures* txostenaren arabera, emakumezkoak %30 dira ikerkuntza zientifikoa, oro har. Unibertsitate mailari dagokionez, batez beste %37 dira emakumezko ikerleak; %39 sektore publikoan eta %19 sektore pribatuan. Nolanahi ere, eta krisiak alderantzira jarri dituenak erabat neurtu gabe dauden arren, orain dela gutxi

arte behintzat, berdintasunaren aldeko mugimendu positiboak ageri ziren bietan. Esan liteke, bestalde, sektore guztietan handitu dela emakumezko ikerlarien kopurua, bereziki zientzia medikoetan, baina baita humanitate eta zientzia sozialetan edo teknologietan eta ingeniartzetan. Azken horietan, dena den, gizonezkoak gehiengoa dira, baita matematika eta konputazio arloetan ere.

Segregazioa, ordea, bertikala da batez ere. Behetik hasi eta espontzialki handitzen da bazterketa, mailetan gora egin ahala, gizonezkoaren nagusitasuna handitzen doan bezala. Unibertsitateetako ikasleen artean emakumezkoak gehiengoa direla aipatu dugu lehenago. Graduatzen direnen %60 inguru dira, hain zuzen.

Baina pertsonal akademikoari erreparatzen bazaio, irakasle titulatuen %36 besterik ez dira, eta katedratikoen artean, berriz, nekez heltzen dira %18-20ra.

Larriagoak dira enpresa pribatuetakoko datu konparatiboak. Adibide zehatz bat: 1.500 langile inguru biltzen dituen Tecnalia zentro teknologikoak emakume bakarren bat besterik ez du piramidearen muturrean. Zazpi negozio dibisiotan banatuta daude, eta dibisioetako arduradunen artean ere ez da emakumerik ageri. Gizonezkoak dira denak.



Ezin konta ahala oztropok osa dezakete kristalezko sabaia. Gizonezkoen arteko korporatibismoa aipa genezake, edo patroï femenino sendoen beharra, norbere buruarekiko segurtasun eza aginte postuetarako, anbizio falta, helburuak edozein preziotan lortzeko afan horren errefusa, postu bererako gizonetzkoek baino gehiago demonstratu beharrak sortzen duen estresa... Gako funtsezkoena, ordea, kontziliazioa da. Esan nahi baita, lana eta familia uztartzeko zailtasuna (zenbait kasutan, ezintasuna). Gizonezkoak ere gura-

so diren arren, arazoa nagusiki amek pairatzen dutelako. Arrazoiak arrazoi, azken hauek direlako batik bat haurren zaintzaz ardurtzen direnak. Eta hain zuzen horregatik, gizonari, seme-alabak izateak mesede egin diezaiokeen bezala, emakumezkoari atzerape-na eragiten diolako kasurik gehienetan.

Halaber, kopurua ez ezik, adina eta eragina ere ukitzen ditu gizon-emakume arteko desorekak. Nabarmenki, gainera, ikerketa arloan, jardun horrek kontzentrazio handia, lan-egun amaiezina eta kanpora ateratzeko

Itziar Nogueras Berra Elhuyar Fundazioko zuzendaria

«Zuzendaritza eredu maskulino hori agortuta dago»

Elhuyar Fundazioko zuzendaritza postu gehienak (7tik 5), emakumeen esku daude. Zuen etxean ez da sabairik.

Hemen betidanik bultzatu da emakumea ardurak hartzera, eta aukera ere beste zenbait tokitan baino zabalagoa izan da, emakume asko gaudelako. Ez da ohikoa, egia. Ikerketa alorreko zuzendaritza foroetan, zentro teknologikoen foroetan, Saretek-en, neu izan ohi naiz bakarra. Hori da gure errealitatea.

Niretzat, generoaren ikuspegitik baino, pertsonaren ikuspegitik hitz egitea litzateke idealena; zuzendaritza estiloek hitz egitea, emakume guztiak ere ez baikara berdinak. Baina horretarako iritsi egin behar da postu horietara eta ez da batere erraza. Oro har, hautatzen dutenek beren erara egiten dutelako, beren antzekoaren bila jotzen dutelako. Hori dela medio, edo gaur egun nagusi den eredu maskulino hori dela eta, emakume askok ez du deus jakin nahi. Tira, eta dagoeneko gizon askok ere ez, bizimodua beste era batera ikusten dute. Beharbada gehiegi orokortzea da, baina eredu hori, nik ezagutzen dudana arloan, aldatu egin behar da, agortuta baitago. Emakumeak postuoi heldu behar die goera aldatu ahal izateko.

Haurrak heltzen direnean ezin omen da berdin jardun.

Ardura postuak dedikazio handia eskatzen du, zalantzarik gabe, ezin da

zuzendaritzarik eraman ordu murrizketa denean. Ikerketan ere, mailaren batean ezaugarri zorrotzak izango ditu lanak, dedikazio handia, kanpora atera beharra.... Bikotean zein erabaki hartzen den, hori da gakoa. Seme-alabak izanda, bietako batek ardura handiagoa hartu behar du. Arazoa da gehien-gehienetan emakumeak hartzen duela eta gainera arlo profesionalari uko egiten diola.

Errealistak izan behar dugu, lanpostu batzuetan ez dago ordu murrizketarako aukerarik eta kanpora ateratzeko prest izan behar da. Baina posible da, eta emakumeek animatu egin behar dute. Bizimodu mugitu xamarra da, eta neketsua. Anbizioa behar da.

Sabaia hor dago, konplexua eta zaila da gora iristea, baina guk ere badugu zeregina, beste jarrera bat agertu behar dugu, beste disposizio bat, eta borroka egin behar dugu. Egia da, zenbait tokitan dedikazioak ikaragarri luzeak direla, egunean orduak eta orduak, eta nire ustez ez da beharrezkoa. Arrazionalizatu egin behar da. Bizitzan ikasi behar dugu.

Lan honek asko xurgatu nau, baina nire bizitza pertsonalari, familiari eta lagunei, ez diet uko egin. Dedikazio handia eskatu dit, argi dago, baina ez dut semeen etaparik galdu izanaren sentsaziorik. Nekatu naiz, eta haurren ekitaldiren batera

berandu iritsi naiz, baina ez egunero. Nire esku egon den guztia egin dut hori orekatzeko. Zer esan nahi du horrek? Oso neketsua dela.

Kontziliazio ezak, ordea, emakumeari jartzen dio trabarik handiena.

Politikoki zuzena ez den zerbait esatera noa akaso... Bada korrante bat zera dioena, seme-alabei ez dakit norainoko dedikazioa eskaini behar zaiela, bularra ez dakit noiz arte eman... Emakumea arlo profesionaletik kanpo uzteko arriskua dago, edo dezente eteteko, eta ez genduke onartu beharko. Bolada baterako ongi dago, nik izan dut esperientzia hori eta egin dudana gauzarik inportanteena izan da, baina ama bezala diot, kontuz. Formula orekatuagoak bilatu behar dira. Kontzientzia txarrik gabe lortu behar da familia eta lana bateratzea.

Bestalde, seme-alabek lan munduan garapena duen ama edukitzea ere oso inportantea da. Familia izateari ez zaio zaintzaren ikuspegitik bakarrik begiratu behar, eta gauza inportanteenetako bat da, ez dut zalantzarik, baina beste ama eredu bat ere ona da.

Ez dakit gizartean zer interes dauden, baina iruditzen zait kanpo utzi nahi gaituztela berriz. Oso zaila dugu eta gainera seme-alabei nahikoa dedikazio ez eskaintzearen aitzakian errudun sentiarazten

prestuasuna bere baitan dituela hain barnertuta dagoenean.

Ikerketa eta teknologia munduko lau lagun bildu ditugu artikulu honetan. Generoak batzen ditu lauak, eta zientziak. Desberdinak dira, ordea, ertz askotatik. Besteak beste, hartzen duten lan esparruagatik, lanean betetzen duten postuagatik, ordezkatzeko dutenagatik, ardura familiarrengatik, jarduteko moldeagatik.

Kontziliazioaz eman digute iritzia, eta ordu murrizketak ikerlariari eragiten dion ete-

naz edota atzerapenaz; emakumezkoen ekarpenaz; amatasunari zaintza ez den beste ikuspegi batetik erreparatu beharraz; sailkapen moduak aldatu eta generoaz baino, pertsonen edota estilez hitz egiteko egokitasunaz; neurri z gaindi dauden ohiturak eta inertzia arrazionalizatzeaz.

Autokritikarik ere entzun da: emakumeak ez die goi postuei heldu nahi, eta ardurarik hartu gabe, nekez irauli daiteke indarrean dagoen molde. Goitik behera errazago, behetik gora baino.

bagaituzte.... Naturaltasuna behar dugu.

Nola egin duzu zuk?

Gako garrantzitsuena talde lana da, delegatzea, kezkak eta lanak banatzea. Ezaugarri femeninoagoa dela iruditzen zait. Eta zure akats guztiekin agertzeko arazorik ez izatea. Noski, konfiantzazko tokietan, kanpoan ezin baita horrelakorik egin. Zeren gizonen ere hori egiten dute, segurtasun handiz agertu. Gero, konturatzen zara horiek ere hutsuak dituztela. Ezaugarri maskulino horretatik ikasi behar dugu guk. Jakina, neurrian.

Bestalde, analizatzeko gaitasuna, planifikatzekoa. Orokortzea gehitxo da beharbada, baina uste dut emakumeok hausnarketarako joera nabarmenagoa dugula, eta erabakiak beste sendotasun batez hartzen dira. Arriskua dugu, ordea, gehiegi luzatzekoa.

Kontua da jendaurrean nola agertzen garen, baina super agintaririk ez dago, ez gizonaezkorik, ez emakumezkorik. Erabaki gutxi hartu dut nik bakarka.



Harremanetarako gaitasun hobea ere nabarmendu izan da.

Galdetzeko arazo gutxiago dugu. Badirudi galdetzea ezjakina izatea dela. Zuzendaritza postuetan dagoen tabuetako bat, hain zuzen, hori da, eta hain da lagungarria umek adina galdetzea, edozein erakundetan. Galderak erreflexioan laguntzen du, norberari ere bai.

Hori gabe oso zaila da elkar ulertzea. Oso autoritarioak diren zuzendariekin topo egiten duzunean, zergatik galdetzea edo zerbait zalantzan jartzea, kritikak entzutea, deserosoa zaie. Orduan sortzen dira matxismokeriak. Orduan azaleratzen dira aurre-iritziak. Gizonen eginez gero ere ez dute ondo hartuko, seguruen, baina errazago egiten dute paso.



EUREKAko Simulagailuetan dibertsioa ziurtatuta duzu!

- I FORMULAekin.
- MAX FLIGHT. Hegazkin simulagailuekin.
- ORION izarretako ontzi interaktiboekin.
- Eta gure MRI eta MR2 errusiar mendiko simulagailuetan.

Asteburutan 11:00tik 19:00etara. **Leku kopuru mugatua.**



eureka!
zientzia
museoa



gizarte
kutxa

DONOSTIA / ☎ 943 012 478 / Informazio gehiago: www.eurekamuseoa.es

Ane Irazustabarrena Murgiondo Nazioarteko proiektuen koordinatzailea Tecnalian

«Emakumeak beste sentsibiltate bat jartzen du normalki proiektuetan»

Europar Batzordeari begira dihardu joan den aspaldian. Handik datozen deialdiak aztertzea, ikertzaileekin eztabaidatzea, aukerak identifikatzea eta proiektuak idazten edota negoziatzen laguntzea ditu ardura nagusiak.

Ongi ezagutzen dituzu Europar Batzordearen politikak. Zer diozu emakumearen arloan egiten denaz?

Lan handia egiten ari da. Kontsiderazio handia du gaiak, helburuetan dagoelako. Adibidez, inon ez du jartzen emakumea buru duen proiektua hobetsiko denik, baina zuk badakizu horrela proiektua borobilagoa dela, hobeto hartuko dela, helburuetako bat betetzen ari zarelako. Idatzi gabeko araua da, nolabait. Teknikoki, jakina, ona izan behar du proiektuak eta sortu den kontsorzioak ere konpetentea izan behar du.

Proiektuen ebaluatzaileen kasuan ere beste horrenbeste. Ahaleginak eta bi egiten dira, proiektuak aztertzen dituen taldean emakumeren bat sar dadin.

Emakumeren bat?

Bai, hala da, oso gutxi dira. Haurrak izanda, esaterako, emakumeak oso zaila du karrera zientifikoa aurrera eramatea, ordu murrizketa eskatzeaz batera. Lanean ari bazara ere, ez zaude gizona bezala kontzentratuta. Eta ikerketak kontzentrazio handia eskatzen du.

Ikerlaria egun erdiz ari bada eta lanetik kanpo ardurak baldin badiu, proiektuetatik atera egiten dute azkenean. Ezin du kanpora atera, halako ordutan bilerara etorri... Lan txiki bat ematen zaio proiektuan eta kito. Hortik dator bazterketa.



Gakoa kontziliazioa dela diozu.

Gako esanguratsuena da, bai. Bada besterik ere. Goi mailako bilera horietan, adibidez Bruselan, arrunt zaila da emakumeen ahotsa entzutea. Gehienak gizonak dira eta gehien hitz egiten dutenak ere haiek dira. Haien kluba osatzen dute.

Nola egin duzu zuk aurrera? 'Gizondu' beharra dago klub horietan sartzeko?

Nire estiloa ez da gizontzea. Zeure pertsonalitatea garatzen duzu, zeure buruari ziurtasuna emanez, zure inteligentzia mahairatuz.

Nola ikusten dituzu beste herrialdeetako emakumeak, esate baterako, Alemanian?

Egia esan, Alemanian ez dut emakumeekin topo egiten. Orain fundizioko proiektuetan murgilduta nabil. Labe jasangarriagoak, energetikoki efizienteagoak lortzeko ikerketan ari gara. Esparru horretan gizonak dira denak.

Nola hartzen zaituzte?

Nahiko ondo. Oso sektore tradizionala da eta ez daukate ikerketarako azpiegiturarik. Egiten duten apurra

beren kabuz egiten dute. Europar komisioren berri ematera zoazelarik, eta dirulaguntzak ere badirela esaten diezularik, harritu egiten dira eta interesa pizten zaie. Han beste jarrera bat dute, dena den. Hemen gehiago nabaritu dut zera hori, emakume bat fundizio batean sartu eta labeak saldu nahian etorri zaienean.

Proiektua emakumeak zuzendu ala gizonak zuzendu, ba ote dago estilo diferentziarik?

Uste dut baietz, badela. Baina batez ere pertsonak du eragina. Orokortu beharko bage-

nu, emakumeak beste sentsibiltate bat jartzen du normalki, eta hori nabaritu egiten da. European batez ere, proiektuak oso konplexuak dira. Imajinatu, jarri mahai beraren bueltan Tecnalía, Alemaniako labe fabrikatzaile bat, Suediako fundizio bat eta sentsoreak egiten dituen Estoniako enpresa txiki bat, bakoitzak bere hizkuntza duela, bakoitza bere hala moduko ingelesean moldatu beharrean... Bileran gure eza-gutzak eta helburuak aipatuko dira, planifikazioa ere egingo da, eta gero, nor bere herrialdera itzuliko da. Hortik sei hilabetera arte ez gara berriz elkartuko. Bitartean, e-postaz edo telefonoz arituko gara, baina konturatuko zarenez, oso zaila da proiektuari jarraipena egitea.

Horrelakoetan oso garrantzitsua da komunikazioa, eta lotura sortzea. Komunikazio onik eta loturarik ez badago, askotan gertatzen dena gertatuko da, bakoitzak bere parte justu-justu egingo duela, eta hiru urteren buruan, emaitza agiri sorta bat besterik ez dela izango.

Beraz, orokortu beharko bagenu, harremanetarako beste sentsibiltate hori jartzen du emakumeak.

Maidar García de Cortazar Ingeniariaritzan doktore eta ikerlaria Tecnalían

«Kristalezko sabaia baino lehen, horma trinko eta zurrunik daude»

Zaila da kontziliazioa.

Gaur egungo sistemaren eta antolaketaaren arabera, zaila ez, ezinezkoa da. Orain 30-40 urte arte emakume gutxi zegoen enpresa eta zientzia munduan. Hortaz, lan egiteko eta lana kudeatzeko moduak gizonen arabera daude antolatuta.

Pixkanaka, enpresa eta zientzia aldatuz joan dira, mundua bezala, emakumeak gehitzearekin batera, baina aldaketa ez da oraindik antolaketa mailara heldu.

Arazoa ez da familia eta lana uztartzea, biak egungo sistemari uztartzea baizik. Izan ere, etxea eta lana bi proiektu dira, bakoitzak bere helburuak ditu, eta malguak izan behar, biak aurrera ateratzeko. Horiek horrela, goi postuetan gizonezkoak egoten dira, eta ondorioz, beraiek diseinatzeko lana kudeatzeko modua. Etxean, berriz, alde-rantziz gertatzen da: maiz emakumeak dira etxeko proiektuaren zuzendari, teknikari, idazkari eta abar, eta beraiek diseinatzeko lana proiektu hori nola kudeatu.

Horregatik, kristalezko sabaia baino lehenago, hormak daude, horma trinko eta zurrunik: ordutegiak, nahitaezko presentzia... Zergatik egin behar dira bilerak arratsaldeko zazpitan, eta ez eguerdian, adibidez?

Bi proiektuak batera eraman ezin direnean, emakumeak askotan bat uzten du. Jakina, lana. Uste dut garrantzitsuen helburua lortzea dela, eta antolaketa horretara egokitzea.

Hiru haur txiki dituzu. Nola daramazu kontu hau?

Lan-ordu murrizketa eskatu nuen bigarren haurra jaio zenean. Baina ordu murrizketa eskatuagatik ere, nire gaitasuna edo ardura ez da txikiagoa. Lanean ilusionatuta eta motibatuta bazaude —gaur egungo sistemak ez du asko motibatzen—, ordu murrizketak ez du zertan proiektua



“Nire ikerketa-taldean hogeita bi lagun gara, horietatik bost emakumeak gara, eta bost horietatik hiru, amak. Datu esanguratsua iruditzen zait honetan daramatzadan hamahiru urte hauetan emakumerik eduki ez izana nagusi”.

aurrera ateratzeko aukera eskatu. Ilusioak eta motibazioak bultzatuko naute beharrezkoa dena bilatzera.

Kontzentrazio handia behar da ikerketan, dedikazioa ere bai. Ordu murrizketak galera dakar. Nola ikusten duzu?

Dedikazioa ordu presentzial kopuruarekin nahastea da akatsa! Ona al da orduak “bete” behar horretan, denbora-pasa egotea? Ona al da bertan kezkatuta egon behar izatea umeak sukarra duenean, lanetik irte-teko beldur zarelako?

Bi proiektuak betetzeko aukera ematea da konponbidea. Uste dut proiektu bakoitzak eskatzen duela zer, zenbat, nola eta noiz eman... Biak ere, proiektu luzeak dira, eta urte “kritiko” horiek, berriz, oso gutxi, umeak pixka bat koskortu artekoak, besterik ez. Pena da urte gutxi horiengatik emakumeen talentua, prestakuntza eta esperientzia alferrik galtzea.

Zer du ona emakume eta gainera ama izateak zientziarako?

Zientziarako, emakume izatea ez da

gizonezko izatea baino hobea, ez okerragoa ere. Desberdina besterik ez da. Beste ikuspegi bat eduki genezake guk, ikuspegi osagarri bat, alegia. Baina agian ama izatetik eta ama izateak sorrarazten dizkidan ataka eta konpromisoetatik, atera nitzake zientziarako umeekin maiz hain beharrezkoak diren irudimena, empatia, asmamena, adimen zabaltasuna, inprobisazioa eta abar. Ume bat kas-keta batetik ateratzea eta horri buelta ematea, hori bai esperientzia! Balia-bide guztiak erabili behar! Esperientzia, prestakuntza, talentua, gaitasuna, ezker eskua, eta baita goi mailako negoziazio ahalmena ere! Horregatik, ikuspegi humanistagoa eman die-zaiokegu lanari, gaitasun emozionala baliatuta.

Nola antolatzen duzu eguna?

Ordutegi jakin batzuetara nahitaez egokitu beharregatik, nahiko gaizki, egia esan. Izan ere, erlojuaren mende bizi naiz, helburuen mende bizi beharrean. Horregatik aldarrikatzen dut beste modu bateko antolaketa, helburuei begirako antolaketa.

Naroa Aldanondo Aristizabal Biologian doktore, Saudi Arabiako unibertsitate batean ari da lanean

«Gizon edo emakume, ikerlari guztientzat da traketsa egoera»

Zer egiten du Kantauriko antxoa ikertu duen emakumezko doktore batek Saudi Arabian?

Horixe galdetzen diot nire buruari sarritan! Egia esan, behin tesia bukatu ez nuen Euskal Herrian ikerketan jarraitzeko lan-aukerarik izan. Horrek kanpora begiratzera bultzatu ninduen. Hemen, Saudi Arabian dagoen unibertsitate batean lan eskaintza interesgarria sortu zitzaidan, eta buruari buelta batzuk eman ondoren, hona etortzea erabaki nuen. Doktoretza ondorengo beka batekin nago, printzipioz urtebetetarako. Itsaso Gorrian bizi diren arrainak ikertzen ditut: arrain hauen biologia eta ekologia, otolitoen azterketa, DNA-teknikak erabiliz.

Zer nolakoa da zure bizimodua? Nola antolatzen duzu eguna?

Hemengo bizimodua, campus barrukoa, oso lasaia da. Larunbatetik asteazkenera ia fakultatean pasatzen dut eguna. Lana bukatutakoan, etxera joaten naiz gehienetan. Oraindik denbora gutxi daramat hemen (hila-bete eskas) eta etxea antolatzen, erosketak egiten eta abar, badut nahikoa zeregin. Dena den, asteburuetan –hemen ostegunek eta ostiralek osatzen dute asteburua– Jeddah-ra joaten naiz, hemendik ordubetera dagoen hiri batera. Hori bai, behin campusetik aterata abaya jantzi behar dut nahi eta nahi ez. Kanpus barruan bakoitza nahi den bezala jatzten da. Jeddah-ra joateko campusetik bertako zentro komentzioletara eramaten gaituen autobusa daukagu. Izan ere, emakumeok campusetik kanpo debekatua dugu gidatzea.

Nolakoa da unibertsitate esparrua? Zure lan taldea?

Lan taldea ez da oso handia. Hamar lagun inguru gara, zazpi gizon eta hiru emakume, denak atzerritarrak. Emakumeak gutxiago gara, egia da,



Bizkaiko Golkoan antxoa gazteak urte batetik bestera izaten dituen gorabeherak ikertzeko, doktoretza-beka jaso zuen 2005ean. 2010ean aurkeztu zuen tesia.

baina kasu honetan arrazoi bereziak ere badira. Saudi Arabiara etortzeko erabakia da zaila emakumezkoarentzat, zer esanik ez bakarrik etorrira. Estatu honek ezartzen dizkigun baldintzengatik da. Baina campusean ez da horrelako arazorik. Unibertsitate esparruan, ikerketan batez ere gizonezkoak daude. Emakume gazteak gutxi gara. Administrazioan, aldiz, bertako jendea da nagusi, eta emakumeen presentzia nabarmena da.

Aztin ere aritu zinen lanean. Orokorrean, ba al da alderik unibertsitatearen eta ekimen pribatuaren artean?

Antzeko egoera ikusten dut, alegia zaila denetan. Lan eskaintzak ez dira ugariak eta sarritan kanpora atera behar da ikerketan jarraitu ahal izateko. Ez zait iruditzen emakumea izatea desabantaila denik zientzia arloan, gaur egun behinik behin ez. Egoera ikerlari guztientzat da traketsa, gizon izan edo emakume izan. Eta kanpora ateratzeko erabakia pertsonaren arabera da.

Ez dut alde handirik sumatzen unibertsitatearen eta ekimen pribatuaren artean. Badut halere, halako pertzepzio bat, unibertsitatean ema-

kume gehiago dagoela goi mailako postuetan.

Ba al da diferentziarik, zure alorrean beti ere, emakumezkoek zuzentzen dituzten ikerketen eta gizonezkoenen artean?

Ezagutu ditudan ikerketa arduradun nagusiak gizonak izan dira. Ez dut emakume ikerlaririk ezagutu ardura handiko postuetan. Arrazoiak ez ditut garbi, baina belaunaldi kontua ere izan daitekeelakoan nago. Datoren urteetan alda daitekeen zerbait dela iruditzen zait.

Nola ikusten duzu kontziliazioa zauden tokitik?

Orokorrean, edozein lan-postutan hobetu beharreko zerbait da kontziliazioa, eta zientzia ez da salbuespena, batez ere nire adinean. Argi dago haurdun geldituko banintz ez ninduketela inon kontratatuko, ez ikerketa zentro batean, ez unibertsitate batean ezta taberna batean ere. Hemen, adibidez, gutxienez urtebetez aritu behar duzu lanean, amatasun baja hartu ahal izateko. ■






argia


www.argia.com/multimedia

bertsio digitaletik harago
argi berri bat sarean




Beranduegi

Interneteko telebista saioa asteartero: umorezko albistegia, lehiaketa, elkarrizketak, erreportajeak, kultura...



Bideoak

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.



Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpiztituluekin.



Bereziak

Teknologia berriak baliatuz, informazioa emateko muntaia bereziak. Izan kronologia interaktiboak, mapa ilustratuak eta abar.

Ramon Agirre

«Guk ere gure errelatoa fikzioaren bidez agertzen hasi behar genuke»

Georg Steiner-entzat “irakurtzea arriskatzea da, garena eta duguna babesik gabe uztea”. “Irakurtzen duzularik irakurri egiten zara” idatzi zuen Sarrionaindiak. Aktore bati so, gure burua antzezten ote dugu, garena eta duguna babesik gabe utziz?

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Zergatik eman ezezkoa elkarrizketa proposamen bati?

Elkarrizketa bat *streaptease* bat da, eta *streaptease*-a arte zaila izateaz gain, biluztean erakustera zoazenak merezi duen eta sasoian zauden uste osoa behar duzu. Elkarrizketa gehiegi eman ditut, eman ditudanen laurdenak eman banitu denontzat hobe. Beti gauza bera esateak jendea aspertuko duen errezeloz bizi naiz eta jendeari kontu jakinak irakurrarazteak izutzen nau. Aktoreei elkarrizketa asko egiten zaie, eta gure ofizioa interesgarria izan litekeen arren, aktore batek ez du zertan pertsona jantzia edo iritzi-emaile aparta izan. Zergatik elkarrizketatzen dira hainbeste aktoreak eta hain gutxi medikuak edo harakinak? Ez al da interesgarriagoa “zein da irakurri duzun azken liburua?” galdera topikoa gure harakinari egitea? Gainera jendeak oso apainduta ikusten gaitu beti, egoki makilatuta eta ondo orraztuta —edo pelukinarekin—, beste batek idatzitako eta buruz ikasitako hitzak ahoan. Horrek areagotu egiten du biluztuta koan maila ez emateko arriskua. “Ez diat mailarik emango!” edo “jendeak uste duena baino tontoagoa nauk!” bezalakoez ikara dakarte. Zeresana duen eta esateko lotsarik ez duen jende asko ezagutzen dut nik, eta betiko *batailidak* kontatu edo ezer berririk ez ekartzekotan hobe lekua beste norbaiti uztea. Ez dauzkagu hainbeste aldizkari, talaia eta erakusleho, grabagailua edonoren aurrean jartzeko.

Alta, politikoki inplikatzeko orduan ez zara ezkutatzen denetakoa.

Behin *streaptease*-a egiten hasita ez da samurra neurria hartzea eta gerta liteke gehiegi biluztea. Segur aski jende batek gehiago ikusi nau pankarta baten atzean edo prentsaurreko bateko manifestua irakurtzen aktore lanetan baino. Ipuineko otsoak bezala, aspaldi erakutsi nituen hatzaparrak, eta nahita ere, orain beranduegi litzateke ezkutatzen hasteko. Horretan, ez dut sekula espekulatu. Badakit aktore batentzat ez dela inteligenteena bere pentsamoldearen kolorea nabarmentzea, baina era berean, pentsatzen duzuna esan eta agertuta hartzen duzun lasaitasunak ez dauka preziorik. Askoz nekezagoa litzaidake “orain

Nortasun agiria

Donostian sortu zen 1954an. Arkitektura ikasi zuen Valladoliden eta Arte Dramatikoa Antzerti eskolan. 1982tik da aktore profesionala, eta antzerkian, zineman zein telebistan egin dituen lanen zerrenda luzeak euskal aktore ezagunenetakoa bihurtu du. Gaur egun, antzerkian *Xen-timorik gabe* obrarekin dabil herriz herri, Ernestoren papera antzezten du *Goenkale*n, eta estreinatzeke dagoen Michael Haneke ospe-tsua zuzendutako *Amour* pelikulan parte hartu berri du.



agertuko nauk, orain ez” kalkulatzeko ibiltzea. Horrek, segur aski, ate batzuk itxi eta beste zenbait irekiko zizkidan, baina nik ez dakit bestela jokatzeko. Nire pentsamoldea edo jokaera gustuko ez duenak ez nazala kontratatu, nik ere nahiago dut beste batekin lan egin.

Euskal Herriko zinemari Berlinaleko ateak irekitzen zaizkionean, *Mugaritz* BSO filma eta sukaldari tropa bidaltzen ditugu enbaxadore. Herri honek ez daki bestela lan egiten?

Denok aldarrikatzen dugu mundura atera behar garela, garena erakutsi behar dugula gure txoko txikian lizuntzen gelditu gabe, baina bidaiatzeko ordua heltzen denean diziiplina mutuak, hitzik gabekoak, sartzen ditugu hegazkinean. Izugarri poztzen naiz nire lagun sukaldari, dantzari eta txalapartariengatik, baina noiz asmatu behar dugu gure antzerki eta zinema mundura ateratzeko modua? Hori asmatu ezean, zailtasunei iskin egiten ari gara, aukerak galtzen. Gure kultura munduratu behar dugula garbi badaukagu, nola utziko dugu euskara, gure kulturaren erdi-erdian dagoen harribitxia, etxean ahaztuta? Aurtengo Berlinaleko sekulako aukera genuen munduko edozein herriren aurrean gure arrastoa agertzeko, eta sukaldaritzari buruzko lan batekin aurkeztu gara! Zergatik ez dute eraman *Urte Berri on, amona!*, *Bertsolari* edo *Bi anai* euskal zinemaren azken uztako erakusgarritzat? Alferrik galdutako aukera izan da, bat gehiago. Noiz arte jarraituko dugu errazkeria horretan, enbarazurik egiten ez duena erakusten eta etxeko lanak egin gabe? Erabili dezagun irudimena. Badira formulak. Guk, Miarritzeko Théâtre de Chimères eta Donostiako Pok taldeekin Bertold Brecht-en *Kaukasiar kreaizko borobila* eman genuen euskaraz Frantziako zen-

“Gure kultura munduratu behar dugula garbi badaukagu, nola utziko dugu euskara, gure kulturaren erdi-erdian dagoen harribitxia, etxean ahaztuta?”

“Beste bide, formatu eta euskarri batzuk atzeman beharko ditugu guk nahi ditugun istorioak kontatu eta nahi ditugun proiektuak aurrera ateratzeko”

bait hiritan: Narbonne, Tarbesen, Nînesen, Bordelen... Ikusleek testuaren esaldirik garrantzitsuenak soilik irakur zitzaketan itzulita pantaila handi batean. Akzio handiko lana zen, musikak indar handia zeukan, eta ikusleek primeran jarraitzen zuten istorioa. Gutxitan jaso dugu horrelako txalo zaparradarik.

Mundura atera gabe Euskal Herrian bertan aritzeko ere balio dezake formula horrek. Noiz arte segituko dugu obra beraren euskarazko eta erdarazko bertsioak egiten?

Handia eta txikia eskutik helduta doazenean badakigu nor irteten den galtzaile. Orain arte, ahalik eta gehien mugitzeko eta merkatuaren lau haizetara iristearren, bi bertsioen formula gailendu da. Ez dakit ordea zenbateraino betetzen den helburua. Bi bertsioak eskainita ikusle euskaldun batzuk gaztelarazkoa ikustera joango dira, obra hobeto ulertuko dutelakoan. Baina begira, iazko antzezlanik arrakastatsuen *Errantsak* izan zen. Bertsio bakarra, ondo egina, indartsua, Gasteizen edo Baionan emateko modukoa, eta baita kanpora eramateko gisakoa ere. Nik, azkenaldian, hala suertatu zaidalako, euskara hutsean egin dut lan, eta niretzat horixe da gozatzeko modua. Nork bere aukera egin dezala, baina gaztelarazko bertsioa egitekoan, aurrena euskarazkoari bere bidea egiten utzi behar zaio, *Wilt* obrarekin egin den bezala. Euskal antzerkiaren egoera euskararen egoera sozialarekin lotua dago eta tratatu berezia behar du, aparteko laguntza: programazioan, sarreraren prezioetan... Nik uste EHAZE-k, Euskal Herriko Antzerkizale Elkartek, lan handia egin dezakeela antzerkiak merezi duen lekua izan dezan. Urtebete pasatxo da sortu zela eta derrigorrezko erreferentzia bihurtzen ari da. Badago zer jorratu eta



Dive Tarpoen urpekaritza

Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxe: 94 4912577
divetarpoen@euskalnet.net
www.divetarpoen.com



non eragin. Lana txukun eginez gero emaitzak ikusgarriak izan daitezke. Auzoan daukagu oso baliagarria zaigun bertsolarien eredua.

Auzoa asaldatzeko gisako eredua proposatu zuen Jesus Eigurenek, euskaraz kalitatez lan egiteko, EITB-k gaztelerazko kateak itxi behar-ko litzukeela adierazi zuenean.

Xelebrea litzateke adar-jotze kutsurik hartuko ez bagenio. Berak euskarazkoa bakarrik utziko lukeela dio, baina zertan ari dira bere kideak? Niri granoak ateratzen dizkidan “egun on, *buenos días*” politika daramate telebista publikoan. Estetikoki zein etikoki politika zatarra da eta euskararen normalizaziorako oso kaltegarria. “Ez lanik hartu euskara ikasten, dena itzuliko dizugu” esaten zaio euskaraz ez dakienari. Eigurenek botatakoak bota eta gutxira *Santrela* desagertzera doala iragarri dute, ETB-ko programa merkeenetakoa garestiegia dela argudia-

tuz. Nola ulertzen da hori? Eigurenek euskarazko telebista indartu behar dela dioten bitartean altzariak banan-banan desmuntatu eta atzeko atetik ateratzen ari dira. Nik badakit literaturari buruzko saio batek ez duela ikusle kopuru izugarriarik biltzen, baina ez al da telebista publikoaren betebeharra gure literaturari eta gure idazleei erakusleio bat eskaintzea? Baiezkoan nago. Fikziozko saioei buruz beste horrenbeste esan daiteke. Orain, esaterako, telebistako euskarazko fikzioa hutsaren hurrena da. *Goenkale* da euskarazko fikziozko tele-sail bakarra munduan.

Krisi ekonomikoa ere ez da hutsaren hurrena. Zuen ofizioak, ordea, berezkoa du prekarietatea. Nola daramazu hori? Zer harreman duzu diruarekin?

Gure ofizioak prekarietatea berezkoa izateak ez du esan nahi gustatzen zaigunik. Beharba-

Aurkezpena:

BERTZE PREDIKU BATZUK
 Egilea: Gratien Adema “Zaldubi”
 Paratzailea: Henri Duhau

GAZTEAK, AISIALDIA ETA EUSKARA
IPAR EUSKAL HERRIAN
 Erramun Baxok eta Jean-Baptiste Coyos

XIBEROKO ANTZERTIA
EDO PASTORALA
 Junes Casenave-Harigile

ONOMASTIQUE DU NORD DU
PAYS BASQUE (XI-XV SIÈCLES)
 Egilea: Eugène Goyheneche
 Paratzailea: Xarles Videgairin

Euskaltzaindia Sarako XXIX. Idazleen Biltzarrean
apirilaren 9an, astelehenean






iker - 27

ligunzaileak
 Euskalaren
 erakunde
 publikak
 Office public de
 la langue basque



OFF THE RECORD

Kalabazak

Elkarrizketa proposamen bat luzatu eta ezezkia jasotzean kaze-tari asko haserretu egiten dira. Ez dute ulertzen. "Harroputz halakoa!", "promoziorako behar nauenean ez diot hots egingo!" edo "ez gara aski garrantzitsuak berarentzat..." bezalako ironia amorratuak pasatzen zaizkie burutik. Orain bi urte Ramoni deitu nionean, neska ederrenak mutil zatarrenari nola, kalabaza eman zidan. Bolada txarrean harrapatzen nuela, medioekin eta elkar-rrizketekin aspertuta zegoela, ez zeukala ezer esateko. Orain hilabete bi, berriro ere zortea tentatzea erabaki nuenean, ez zidan baiezkorik eman, hasiko ginela eta ikusiko genuela nora iristen ginen. Honaino heldu gara. Elkarrizketatua ezagutzeko hartzen duguna baino denbora gehiago hartu behar genukeela ikasi dut bidean, eta batez ere, isilik egoten dakienaren hitzak balio erantsi bat duela. Lehenbiziko ezezkoarekin betiko zapuz-ten denak ez daki zenbat kalabaza ematen dizkion bere buruari.



da ez gara hain erraz larritzen baina aktore okupatuena ere urtero probatzen du langa-bezia bolada bat baino gehiago. Lan bat bukatu, kobratu beharrekoa kobratu, eta aurretik ezer ez datorren bertigo sentsazio hori. Gure ofizioan ere jende dezente dago lanik gabe. Nik ez daukat kexatzerik, ez zait lanik falta. Horretan zorte onekotzat dut nire burua. Pasa ditut txakalaldiak baina lan batekin ez bada bestearekin beti egin dut aurrera. Diruari gehiegi erreparatu gabe, lanik interesgarrienak hautatzen saiatu naiz, eta gaur egun, ondo bizi naiz. Nahikoa daukat nahi dudana bezala bizitzeko eta gutxiagorekin ere badakit bizitzen.

Arte eszenikoen munduak ere aspaldi ikasi zuen gutxiarekin bizitzen, baina noiz hasiko gara herri honen kexak, zauriak, pozak eta istorioak antzerkian edo zineman kontatzen?

Hasi gara. Lehen aipatutako zinemaren azken uztan, *Bertsolari*, *Urte berri on*, *amona!* edo *Gartxot* gutaz ari dira. Hala ere, egia da gure azken urteetako historiari buruz asko dagoela egiteko. Beste batzuk hasita daude errelatoa idazten eta guk ere gurea fikzioaren bidez prestatzen eta agertzen hasi behar genuke. Zinema industria handia da ordea, eta dirua jartzen duenak erabakitzen du zer kontatzen den eta zer ez. Guk egin nahi ditugun filmak egiteko Madrildik edo Gasteiztik laguntzarik ez badator beste era batera egin beharko ditugu. Gurean gauza handiak egin dira zerutik letorkeen laguntzaren zain egon gabe. Orain, adibidez, presoen gaiari heldzen dion bost dokumentalez osatutako filma egitekoak dira bost euskal zinemagile. Ezin gara lo egon. Film estandarrek egiteko aski sosik ez bada-

go, beste bide, formatu eta euskarri batzuk atzeman beharko ditugu guk nahi ditugun istorioak kontatu eta nahi ditugun proiektuak aurrera ateratzeko.

Donostia 2016ko hiriburu kulturalaren izendapenak zer atera behar luke aurrera?

Egitasmoak bidea egin du nigan. Hasieran hotz hartu ninduen. Sei-zazpi adituk idatzita-ko aurkezpen txosten lodikotean "kultura", "bizikidetzatza", "pluralismoa" edo "parte-hartzailea" bezalako hitz potoloak azaltzen ziren, eta ideia eder asko, denak sinatzeko modukoak. Hitzak, hitzak baizik ez dira ordea, eta orduko agintariek hori guztia errealitate bihurtzeko zuten gaitasunaz zalantza handiak nituen. Denok ez ditugu hitz horiek berdinduz ulertzen. Aldea dago batzuek eta besteek nahi eta irudikatzen dugun Donostiaren artean. Jaurlaritzako Turismo sailak eta La Oreja de Van Gogh taldeak atera duten bideoa ikusi besterik ez dago horretaz jabetzeko. Ikuspegi horrekin ez dut imajinatu ere egin nahi zer izan litekeen Donostia 2016koa bezalako egitasmo bat. Baina hauteskundeek udal-agintarien aldaketa ekarri zuten, bestelako estilo bat gailentzen ari da, eta orain inplikatuago sentitzen naiz. Donostia 2016koa ez da alferrik galtzeko moduko aukera. Ez gara ondo hasi Jon Maiaren izendapenaren inguruko eztabaida maltzurarenkin baina seguru nago oztopoak oztopo bide polita urratuko dugula. Garbi daukat aukera paregabea dela, baina ez badugu alferrik galdu nahi, gurea geuretik erakutsi beharko dugula. Asmatu beharra dago, jende asko dago guri begira. ■



Amaierarik gabeko tunelean

1980ko hamarkadaren amaieran eta 90ekoaren hasieran, EHUko ehunka irakasle jardun ziren borrokan kontratu mota berri baten alde. 1992ko martxoaren 30ean, unibertsitateak eskainitako kontratua sinatzeari uko egin zioten horietako bederatzik. Gaur egun, hiruk jarraitzen dute EHUtik kanpo, eta bik, Antton Azkargortak eta Jose Luis Herrero, Leioako campuseko paisaiaren zati bihurtu den pankartari eusten diote oraindik. Beraiekin hitz egin dugu, aipatutako dataren hogeigarren urteurrena betetzear den honetan.

UNAI BREA

Argazkia: Iñigo Azkona

1990EAN, EHUko 97 irakasle epaitegietara jo zuten. Hilabete batzuk lehenago, kontratu administratiboa sinatzeari uko egin zioten; euren argudioa zen kontratu mota hura behin-behinekoa izan arren, unibertsitatearekin zeukaten lan harremana iraunkorra zela. EHUK kalean utzi zituen irakasle haiek, eta hori izan zen demandaren zergatia.

Epaitegiek, hasiera batean, irakasleei eman zieten arrazoia –kanpoan utzi izana bidegabeko kaleratzea zela esanez–, eta irakasleak, behin-behineko egoeran bazen ere, EHUra itzuli ziren. Baina azkenik, 1992an, unibertsitatearen helegitea aintzat hartu zuen EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak. EHUK urte hartako martxoaren 30era arteko epea eman zien ia ehun irakasle haiei betiko kontratu administratiboa berritzeko, eta hala egin zuten denek, bederatzik izan ezik, Leioako campuseko zortzik eta Ibaetako batek. Urtebete geroago, sei ziren.

Aurrekari horietan oinarrituta, Antton Azkargortak eta Jose Luis Herrero martxoaren 30a hartzen dute beraien kaleratzearen urteurren datatzat. “Kaleratu” terminoa bera ere eztabaidagai da; 1992tik, EHUK “irakasle ohi” erabili izan du haiei buruz hitz egiteko, eskaini zitzaizen kontratuari uko egin ziotela argudiatuta. “Guretzat, berriz, argi dago kaleratzea dela –dio Herrero– unibertsitateak bazeukalako aukera, garai hartan, administratiboa ez zen kontratu mota bat eskaintzeko; lan-kontratua, gaur ez bezala, legeak debekatzen zuen, baina bi kontratu moten artean bazego-



Argazkiaren erdian ageri da Antton Azkargorta, eta eskuman Jose Luis Herrero. “Arazo honi konponbidea ez ematearen arrazoia, gaur egun, EHUtik kanpo dagoela uste dugu”, adierazi digute.

en erdibide bat, handik urtebetera Goiriena errektorearekin egin genuen akordioan frogatu zenez. Gobernu Batzordeak eragotzi zuen akordio hura gauzatzea, horregatik da kaleratzea”.

Gatazka luze baten abiapuntua izan zen hura. Lege-dian izandako aldaketak medio, 2007an EHUra itzuli ziren Jose Ramon Etxebarria eta Jexuxmari Zalakain. Ez, ordea, Azkargorta, Herrero eta ordurako irakasle kalera-tuen kolektibotik aldentuta zegoen Enrike Lopez, 2008an argitaratu genuen erreportaje-
an azaltzen denez (ikus ARGIA, 2.164. zbkia.). Geroztik, Juan Ignacio Perez Iglesias errektorearen garaian hasitako negoziazioari berriz heltzeko eskatzen dute pankartan dirautenek. Erantzun bakarra Iñaki Goirizelaiaren agintaldiaren hasieran jaso zuten: hiru bilera egin zituzten bitartekari batekin balizko negoziazio bat prestatze aldera, baina EHUK komunikazio ildo hori bat-batean eta esplikazio-rik eman gabe eten zuela diote, PSE-EE Lakuara ailegatzearekin batera, 2009an. Gertakari bien arteko lotura frogatzeko modurik ez dute Azkargortak eta Herrero, baina bai susmoak. “Une honetan, gure aldarrikapenak nahiko normalak iruditzen zaizkio unibertsitate barruko gehiengo zabalari. Arazo honi konponbidea ez ematearen zergatia EHUtik kanpo dagoela uste dugu”. Euren borroka ildo azkenera arte mantenduko dutela diote, baina une honetan urrun ikusten dute konponbidea. ■



• Abasolo auzia •

Indultuak zabaldutako zauriak

Paul Abasolo futbolaria espetxean sartzear zegoela, hark erasotako emakumeek irakurri zuten Oviedoko taldean jokatzeko hasiko zela. Handik ia urtebetera, Zapateroren azken Ministroen Kontseiluak indultatu egin zuen. 1995eko Zigor Kodeari jarraiki epaitutako sexu erasotzaile bakarra indultatu du Espainiako Gobernuak: Paul Abasolo Amantegi.

MARIA GONZALEZ GOROSARRI

ERTZAINTZAK 2007ko abenduan atxilotu zuen Paul Abasolo (Durango, 1984), Irungo Real Union futbol taldeko jokalaria zela. Abasolori bost delitu sexista leporatu zizkioten: lau sexu eraso eta bortxaketa bat. Handik bost hilera, 30.000 euroko fidantza ordainduta, espetxea utzi eta futbolera bueltatu zen, emakumeei eraso egitea bizitza pertsonaleko kontua bailitzan. Irungo taldean oraindik beste urte bi egin zituen; gero, Lemoan jokatzen hasi zen. Bilboko Athleticetik eta Salamancak, hasiera batean haien taldeetan nahi bazuten ere, azkenean atzera egin eta ez zuten durangarra fitxatu.

Paul Abasolo 2010eko maiatzean Bizkaiko Auzitegian epaitu zuten eta hiru abusu larriengatik zigortu zuten, hedabide gehienek bere izenik argitaratu ez zuten arren. Epaiak hiru urte eta hiru hileko espetze-zigorra ekarri zion. Auzitegiak prozesuaren kostuak ordaintzera ere kondenatu zuen. Hala ere, emakume guztiei ez dizkie kalte-ordainak ordaindu beharko, akusazio partikularrik izan ez dutenen kasuan, fiskalak ez baitzuen haientzat kalte-ordainik eskatu. Futbolariak urruntze-agindu bakarra jaso zuen, berriro ere fiskalak ez zuelako horrelakorik galdegin. Salaketa jarri zuen emakumeetako bat ez zen epaiketa egunean agertu, baina ez zen ikertu zergatik. Are gehiago, Estatuak ez zuen bere salaketa faltsutzat jo eta, horregatik, ez zuen emakumea behartu eragindako gastuak ordaintzera. Eta beste emakumeetako batek ezin izan zuenez erasotzailea taxuz ezagutu, bortxaketa salaketa hori ere bertan behera geratu zen. Izan ere, legezko froga nahikorik ezean, Abasolo horren egileztzat hartzeko zalantzak agertu zituen Bizkaiko Auzitegiaren epaiak. Hala, hiru erasogatik zigortuta,



JONÁS SÁNCHEZ / ROCF1926.BLOGSPOT.COM.ES

Bost eraso salaketetatik, hirugatik kondenatu zuten jokalaria, hiru urte eta hiru hilabeteko espetxealdira. Zapateroren Gobernuaren indultuari esker, kalean da. Real Oviedo taldean, 2. B mailan, jokatzeko du egun (goiko irudian).

hamabost urteko espetxealdia izateko arriskutik hiru urte eta hiru hilabetekoa izan zen azken emaitza.

Abasolok ez zuen espetxean 2007-2008 bitartean emandako bost hilengatik kalte-ordainik eskatu. Bost eraso leporatu zitzaizkion hasiera batean, Gernikan izandako bost erasoen egileak bere ezaugarriak zituela-eta, baina aipatu moduan, bost salaketatik hirugatik zigortu zuten. Horrenbestez, espetxealdi prebentiboaren proportzionaltasunik ez dagoela argudia dezake Abasolok. Ez du, baina, horrelakorik egin. Alderantziz, Espainiako Auzitegi Gorenean helegitea aurkeztu zuen, baina horrek ere hiru urte eta hiru hileko espetxealdia betetzeko epaia berretsi zion. Orduan, Espainiako Gobernuari eskatu zion espetxe-zigorrik ez betetzea.

Oinarririk gabeko indultua

Ez zirudien Espainiako Gobernuari eskatutako indultua aurrera atera zitekeenik, 1995eko Zigor Kodeari jarraiki epaitutako sexu erasotzaile bakar bat ere ez zuelako ordura arte Gobernuak inoiz indultatu. Zigor Kode

horrek eraso sexistak 1973koak baino gogorrago zigortzen ditu.

Lehenengo eta behin, 1870eko Indultu Legearen arabera, delitu erdi-publikoetan, erasoak jasan duten emakumeei "entzun" egin behar zaie, indultua eman aurretik. Sexu erasoak delitu erdi-publikoak dira, hau da, salaketarik ipini ezean, ikertzen ez diren lege-hausteak dira. Hala ere, Paul Abasolok erasotako emakumeei ez zien Gobernuak indultuaren berri eman. Azken batean, emakumeak lege-prozesutik kanpo daude: ez dute erasotzaileak zigorra beteko ote duen jakiteko biderik, ez eta indultuari helegitea aurkezteko ere. Horrenbestez, Abasolok erasotako emakumeek ez dute aukerarik ere haien eskubideak Espainiako Konstituzio Auzite-

gian babesteko. Horretarako, epaiketari akusazio partikular bezala aurkeztu behar izan zuten, horrek dakarren gastu ekonomiko handiari aurre eginez. Beraz, erasoak jasan ez ezik, gastu ekonomikoa ere euren gain hartzeko eskatzen du Justizia Administrazioak, buruzagi politikoek erasotzaileak zigorrik gabe uzteko ahalmena duten bitartean.

Zalantza kasuetan presoaren alde egiteko eskatzen du legeak, nahiz eta Bizkaiko Auzitegiak "arraro" iritzi zion Gernikan ordu berean "Abasoloren antzeko ezaugarriak" zituen bigarren erasotzaile bat aritzeari

bardoak

2012

nafarroako taldekako bertso ekimena



FINALA

MARTXOAREN 31N,
LEITZAKO PILOTALEKUAN, 17:00ETAN

ERAUNTSI (MALERREKA/ORNOZ)
BILIXKORRIKO (ETXARRI ARANATZ)
RIMAK EXKAKKO (LESACA)

ONDOREN HERRI AFARIA

SARRERAK: WWW.BERTSOSARRERAK.EU
INFORMAZIO GUZTIA: WWW.BARDOAK.COM



antolatzailea



argia

WWW.BARDOAK.COM



LAMONCLOA.GOB.ES

Bigarrenik, indultua emateko betekizunen artean, beste lege-hausterik egin ez izana eskatzen diote zigortuari, eta hiru sexu eraso egin izana egiaztatu zuen Bizkaiko Auzitegiak. Hortaz, Abasolok ez zuen lege-hauste bakarria egin, hiru baizik, baina hiru erasoek epai bakarria izan zuten. Beste aldetik, adin txikikoez gauzatutako lege-hausteen aurrekaririk ez da geratzen. Horregatik, Paul Abasolok 18 urte bete aurretik beste emakume batzuei sexu erasoak egin izan balizkie, ez ziratekeen indultua emateko kontuan izango. Lege-ondorioetarako, inoiz eraso egin izan ez balie bezala jokatzeko du Estatuak, gizartearen elkarbizitzaren aurkako delitu larriak badira ere.

Azkenik, Bizkaiko Auzitegiaren epaiak Abasolok gauzatutako sexu abusuen “arriskugarritasuna” azpimarratzen du. Gernikako lehen erasoak kalean gauzatu zuen Abasolok. Salatutako azken hiruak, berriz, egun berean egikaritu ziren, bi orduren buruan. Hiru eraso horien kudelkeria agerikoa da: lehen biak sexu abusuak izan ziren eta hirugarrena, ustezko bortxaketa. Bizkaiko Auzitegiak azken eraso horren egiletza Abasolori egozteko zalantzak ikusi zituen eta ez zuen futbolaria zigortu. Zalantza kasuetan presoaren alde egiteko eskatzen du legeak, nahiz eta Bizkaiko Auzitegiak “arraro” iritzi zion Gernikan ordu berean “Abasoloren antzeko ezauzgarriak” zituen bigarren erasotzaile bat aritzeari. Dena den, indultuak ezin dezake erasoaren larritasuna gutxietsi. Gainera, espetxekaldi prebentiboaren eta Bilboko Auzitegiaren zigorraren arteko proportzionaltasunik eza ez du arbuatu Abasolok.

Horregatik guztiagatik, eta indultua sinatu ostean Espainiako Gobernuak inolako argudiorik eman ez zuela aintzat hartuz, Paul Abasolori emandako indultua futbolariaren

Inolako argudiorik gabe Espainiako Gobernuak Paul Abasolori emandako indultua futbolariaren sendiaren botere ekonomikoarekin lotu du hainbat hedabidek. Goian, Zapateroren legegintzaldiko Ministro Kontseilua, 2011ko argazkian.

Paul Abasolori emandako indultua futbolariaren sendiaren botere ekonomikoarekin lotu du hainbat hedabidek

sendiaren botere ekonomikoarekin lotu du hainbat hedabidek. Amaren aldetik, Urkiola-ko Parke Natural ondoko harrobietako jabearen ondorengoa da Paul Abasolo Amantegi. Azken batean, indultua erabaki politikoa da eta ez judiziala; hau da, Estatuak gizon baten eraso sexistak egiaztatzekeo zenbait eragileren parte-hartzea ordaindu eta gero (Ertzaintza, epaitegia, epaileak...), emakumeen eskubide horiei uko egin diete buruzagi politikoei. Kontuak kontu, erasoak jasan duen emakumearen eskubideak bakarrik ez, gizartearen elkarbizitza babestea ere bada epaien helburua.

Erasotzaile sexisten desmitifikazioa

Sexu erasoak ez da alde bakarreko sexu harremana, indarkeria baizik. Horregatik, lege-haustea da eta ez gaixotasuna. Javier Urra psikologoak egiaztatu moduan, emakumeak erasotzen dituzten gizon matxistak ez dira gaixoak: “Badakite zer egiten duten eta egiten dutena egin nahi dute”. Erasotzeko unea aukeratzen dute. Jokabide sexistak justifikatzeko, Abasolok eraso zituen emakumeak “bere neska-lagun ohia eta koadrilakoak” zirela zabaldu zen. Baina emakumeek ez zuten elkarren berri. Erasotzaile sexisten jokabide matxista agerian dutela azaldu du Urrak: “Autoestimua altua eta egozentrismo handia dituzte”. Egindako kaltea gutxiesten dute eta emakumeenganako enpatia falta dute. Paul Abasolok kezka handia azaldu zuen epailetan, legeko prozesuak bere futbolari karreran zein eragin izango ote zuen.

Kasu honek erasotzaile matxistak desmitifikatzen ditu: euskalduna da, familia aberatskoa eta neska-lagun formala duen gazte ederra da. Gainera, futbolaria da, ospe eta prestigiodun kirolleko jokalaria. Berresten da eraso sexistek ez dutela desio sexualik asebetetzen, helburua emakumeak umiliatzea dela. Horregatik, zenbait erasotzailek ez dituzte emakumeak haien zakilekin bortxatzen, botilekin eta atzamarrekin baizik. Abasolo zigortzeko frogak nahikorik aurkitu ez zuen bortxaketa salaketa azken horietakoa izan zen, egun hartan Gernikan bi orduren buruan gertatu zen hirugarren sexu erasoak, hain zuzen.

Abasoloren indultuak futbolariak erasotako emakumeen eskubideak urratzen ditu. Egindako sexu abusuak gutxietsi dituzten politikariek eraso sexistak salatzeko hamaika kanpaina egingo dituzte. Zergatik babestu dute, orduan, Paul Abasolo zigorrik gabe uztea? ■





TTAKUN (H)ERRENKA

Gure porrota

B

eharbada, Beñat, Jose Luis, kutsu epistolarragoz ibili izan bagina emaitza hobek genituzke, karta bati

bertan irakurritako ezeri erreferentzia egin gabe erantzutea ez baita adeitsua, eta hala, aurretik idatzi duenari kasu ez egitea kontu pertsonala litzateke, eta Beñat, aipatu dituzun morbozaleek arrazoi izango lukete, haserre geundeke bata bestearekin, saila kitzikagarriago egingo lukeen zer-bait (beste inon tokatuko balitzaigu halako sailen bat errepikatzea, hitz emaidazue, lehengo, *Kaña* bat hartuko dugula, edo *Bloody Mary* bat). Nik gaur Beñat, zurekin guztiz ados nagoela esateko tentazioa dut, baina behin idazten jarrita, ez dugu alferrik egingo.

Ondo edo gaizki konpontzen ote garen argitzera jarri bazara, norbaitek gaiaz esplizituki galdetu dizulako dela suposatzen dut, elkarrri esan dizkiogunekin, nik nire kabuz, ez bainuke inoiz imajinatuko inork haserre gaudela pentsa zezakeenik. Poztu egin nau, kritika asko egin baitezakegu kanporantz, baina gurea, maiteak, eztabaida kontuetan, porrot handi bat izan da. Haserre gaudela pentsatuko balute guri, zer? Gu, zer? Iruditzen zait, testuak baino, serio hartzen duguna gure burua dela. Ez da berdin-berdina. Niri haserreez galdetu zidaten aldia, bataren edo bestearen aldeko atxikimenduekin, Aritz Galarragak *Deabruaren abokatua* sailerako egin zidan elkarrizketa baten harira izan zen; egin didaten dibertigarriena, bigarren galdera sortari “bigarren rounda” izenburua jarri zion. Giltzurrun bat emango nuke Chesterton eta Shaw eztabaidan entzuteagatik, hain lagun!

Ez dakit nondik datorkigun polemizatzeko patxada, *flema*, falta hau.

Esatera nindoan euskal sistemaren txikitasunak zirkuluak ixten dituela, beti esaten dena, denok elkar ezagutzen dugula,

DANI BLANCO



Ixne Apaolaza



Padrón



Sarasola

komeni dela elkarren solemniteteak errespetatzea, ez gauza handien truke ere, laz-tan batzuk beharbada, gehiagoadinean aurrera, hitzaldi bat, kolaborazio baterako proposamena, eta batez ere, inoiz ez isiltasun hori, zure pentsamenduak zure lankidearenaren pare tratatuak diren mundu bat, idazle

tonuz hitz egin ahal izateko uharterik gabe; baina ez da hori...; batzuetan pentsatzen dut alferkeria intelektual dela, esfortzu handiagoea eskatzen duelako buelta bat gehiagomateak, eta gure porrota esplikatzen zentzuzkoagoa da; baina idazleek ere zoriontsuak izan nahi dugu gehienetan, gaixotasun hori, eta eskailerak gorantz igo... Ez gurea azaltzeko, mozkor burutapentzat baizik, gutxi irakurtzen dela ere esan dut, idazleen artean, eztabaidatzearekin zerikusi handia duena; baina gero gogoratzen naiz nire erreferentziak, estrukturalak, ez direla berrienak izaten, eta horrek beste zailtasun bat ekarri dit: nire erreferentzia berberak behar ditut eztabaidatu ahal izateko? Zer ikusia du daki-guna baino ikasten ez dugula dioen baieztapenarekin? Flaubertek zera idatzi zuen aldarrikatuz hasi naizen genero epistolarrean; “Lagun ezezagunentzat argitaratzen dugu. Inprentak hori baino ez du ederretik. Zabortegi zabalagoa da, urrutitik kolpatzera doan sinpatia tresna bat”; eta agian pentsa daiteke, behar bezala, lagunekin baino ezin dela eztabaidatu, ezezagunak badira ere. Eta gu

hiruok, ez gara gaizki konpontzen, Madrilera etorriko bazinate, etxera gonbidaturik zaudete, ironiarik gabe diot, baina ez gara lagunak, ezta zentzu horretan ere, eta “sinpatia kolpeak” ez duela bataren erreferentziatik bestearenera iristen asmatu.

Ohartzen naiz azkean alferrik idatzi dudala, zu horixe esanez hasi baitzinen Beñat; ados beraz. ■



Poztu egin nau, kritika asko egin

baitezakegu kanporantz, baina gurea,

maiteak, eztabaida kontuetan,

porrot handi bat izan da

Mikel Zurriano

EHUKO IRAKALSEA

M-29 eta gehiago

Espainiako –PPren– Gobernuak sutsu ekin dio bere hasierako urtean Estatuaren kontrarreforma zabal eta orokorrari. Erreforma fiskala, finantza erreforma zein lan eremukoa dira esanguratsuenak. Erreforma hauetan guztietan aldaketak indarrean jartzeko aitortutako helburuak betetzea zaila izango da. Fiskalitatean defizitaren hasierako muga malgutu arren, oso zabaldua dago Europako Batzordeak 2012 urterako onartutako %5,3 betetzea ezinezkoa izango delako ustea, eta are gutxiago 2011ko %3. Likidezia txertatzeko erakundeen egonkortasuna eta garbiketa bilatzen zuen otsaileko finantza sistemaren erreforma ez da helburu hori lortzen ari. Espainiako banketxeek Europako Banku Zentralaren maileguren ia erdia beren esku izateak erreforma motz geratu dela frogatzen du. Hirugarren erreformaren ageriko xedearen betekizuna, enplegua sortzea alegia, legea onartu eta berehala zalantzan ipini du Rajoyk berak, erreformak epe laburrean ez duela lanposturik sortuko aitortuta.

Errealismo politikoa eta ekonomikoa aintzat hartuta, aldiz, lege hauek Estatuaren itxura eta funtzioaren eraldaketa sakonaren zantzuak dira, inondik ere. Estatu interesen mende dagoen estrategiaren



DANI BLANCO



Hirugarren erreformaren

ageriko xedearen

betekizuna, enplegua

sortzea alegia, legea

onartu eta berehala

zalantzan ipini du

Rajoyk berak,

erreformak epe

laburrean ez duela

lanposturik sortuko

aitortuta



ardatz dira eta probetxuzkoa zaie Estatuari zein berarekin lotutako botere ekonomikoa-ri. Hain zuzen, aurreko astean Espainiako Bankuak baieztu zuen Espainiako Estatuaren enpresen errentak soldaten errenten gainetik ipini zirela lehendabizikoz 2011 urtean. Beraz, krisiaren aitzakiarekin errenten birbanaketa atzerakoi erraldoia ari da jazotzen, ildo horretan sakontzen dute aipatu kontrarreformek, eta trantsizioan ipinitako itun sozialaren habe ahulak kolokan jartzen ari dira. Erreforma finantzarioak zein fiskalak zor pribatuaren publikazioa are gehiago errazten dute, finantza erakundeetako zorraren zati garrantzitsua zor publiko bihurtuta. Lan merkatuaren erreformak deflazio konkurrentzialaren ildo ortodoxoa sustatzen du, alegia, soilik lan kostuen jaitsieran oinarritutako enpresen lehiakortasunaren hobetzea eta, beraz, etekinen igoera. Langileen eskubideak ez ezik negoziazio kolektiboa eta Estatuako sindikatu nagusien kontzertazio estrategia ere hondatuta uzten ditu aipatutako erreformak. Honenbestez, ezin da aipatzeke utzi Espainiako Estatuaren beste berregituraketa prozesu baten aurrean gaude- la, lehen ere orriotan aipatu izan dudana eta aurrerago aztertuko duguna, Autonomien Estatuarena alegia. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



jomuga, zaborra estakuru, galdu boterearen beroa xede. Usurbilen hasi bidearen emaitzak etsai, estali kontenedore eta lurrazpi-ko zulotan lurperatu nahi dituzte lotsak, gu guztionak ez bailiran. Komunetatik beherakoak bezala desagerrarazi nahiko genituzke inork ikusi ez ditzan, inguru hurbileko errekak itsasoratu eta hondartza hondakintzen ardura ez bagenukeen legez bizi. Atez atekoak eman digu aukera guk sortu zaborra kudeatzeko lehengaiak izateko, ezinbestekoak, beharrezkoak. Gaztetan, tailerretan ikasi genuen burdinak eta gainerakoak bereizten, balio ezberdinetakoak mul-

Bildu

tzotan biltzen, txatartegietan gaiak banaka aurkezteak zuen gainbalioa zenbatzen, jurnalarien urteroko banketea irabazten. Horrela ikusten ditut orain Hernaniko lagunak elkar- teko sukaldean, ongi egindakoaz pozik, zaborra hein handienez berbaliatzearen harrotasunaz. Hasiera batean duda mudatan bazeuden ere, ekinaren ekinaz uxatu dituzte kezka haiek eta egun eredu garriak senti- tzen direla esatera ausartuko nintzake. Errefusa gutxiagotzea dute orain helburu, errauste erraldoia etsai, bestelako gizarte antolakuntza bideratzen asmatzea da lortu beharrekoa. ■



Eneko Olasagasti

ZINEMA EKOIZLEA

Koloreak paretan



ilabete batzuetatik hona ni, gure herria bezala, bidaia batean sartuta nabil. Urte luzetako gatazkaren alde bat bukatu da. Beste asko falta zaizkigu bizikidetza deitzen

horretara heltzeko. Eta hortxe gaude, kaminoan, pausoak emanez. Eta badirudi, gatazka beraren inguruan baino gehiago kostako dela beronen kontakizunarekin denok bat etortzea. Hori bihurtu baita orain lehentasuna: kontakizuna edota errelatoa. Eta, somatzen denez, zaila izango da horren gaineko batasunik lortzea, helburua norberaren kontakizuna besteenari gailentzea izaten ari da. Eta batzuek kontakizun bakarra egon dadin ahalegin guztia egingo dute.

Kontakizun bakarra ezinezkoa dela pentsatzen dugunok lanak ditugu beraz. Eta kontatzea lana dugunok ardura berezia. Ez da erraza bizi dugun unean distantzia hartzea kontatu nahi denarekiko. Baina nago ahalegina beharrezkoa dela. Beharrezkoa errelatoaren ertz desberdinak erakustea. Eta ez dut uste biktima/borrero binomioarekin lotu behar denik bakarrik kontakizun bakarrarena. Errelatoarena gehiago lotzen zaio egiaren, edo



DANI BLANCO

egia baten, nagusitasunari beste ezeri baino. Eta hemen are zailagoa egiten zait imajinatzea egia bakarra. Errazagoa egiten zait pertsonak adina egiak imajinatzea. Zeren bizitza bakoitza egia bat da. Bakoitzak bere egia bizi du. Eta zenbat eta egia gehiago gehitu bidaia honi, aberatsagoa kontakizuna.

Bost zuzendarik bost egia desberdin kontatzeko ardura hartu dugu. Bost euskal preso politikoen erretratoak-edo eginez. Bost kolore desberdin kartzelako pareta gris batean margotuta. Kontakizun horren ertz batetik begiratzen saiatu gara bizitza horiek. Izango da leporatuko digunik partzialtasuna. Ez dugu ukatzen. Ertz batetik begiratzeak ez du esan nahi ordea gaitzontzekoak ez ikustea. Are gehiago, nahi baduzu zure ertz jendeak begirunez ikustea derrigortuta zaude zu ere beste ertzeekin malgua izatera. Bidaia ez da eroso. Galdetu bestela gure ipurdiei. Bidea batzez edota zuloz beteta dago. Batzuetan saltoka goaz eta bestetan hanka zuloan sartu izan dugu. Lokaztu gara. Baina helburua hor ikusten dugu, orain gertuago: pantaila bat. ■



Errazagoa egiten zait pertsonak adina egiak imajinatzea. Zeren

bizitza bakoitza egia bat da.

Bakoitzak bere egia bizi du.

Eta zenbat eta egia gehiago

gehitu bidaia honi,

aberratsagoa

kontakizuna



TXANDAN

Igor Estankona



Lagun bat daukat bi bider interbenitua, bi bider erreskatatua: greziarra da eta banku portugesez batean egiten du behar! Akaso horregatik dauka patxada hori, sano helenoa den ironia beltz puntutxoarekin adierazi baitzidan lehengoan poeta erdaldunen antzera daudela eurak, Alemani itxaroten, lasai. Lur jota, esan nahi baita.

“Zergatik halako geldotasuna Senatuan? Zergatik jezarrita daude senatariak eta ez dute legerik ematen?” galdetzen zuen Kavafisek *Erdaldunen esperoan* poeman. “Erdaldunak egun helduko direlako. Zein-

Erdaldunen esperoan

tzu legeak emanen dituzte bada senatariak? Erdaldunak heltzen direnean emanen dituzte”.

Baina erdaldunak ez dira iritsi, eta kale eta plazak hustu egin dira bizkor. Ilundu du eta erdaldunik ez da ageri, eta batzuk mugetatik heldu dira, eta esan dute erdaldunik jadanik ez dagoela. “Eta orain zer gertatuko zaigu erdaldunik gabe? Jende hauek zelanbaiteko konponbidea ziren”.

Ezinegon hori ulertzen dut, erabaki beharrarena. Baina erdaldunak ez baletoz? Eta geure etorkizunaren jabe geu bagina? ■



ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Pazko-goiza

Mila legoa luze eta bi muga latz bitarte, zazpi lurralde apartatutan banatutako herri menditsu bezain itsasotsu bat zen zerupean. Zori gaiztoko militarrek eta politikariek hautsi eta zabartutako herri eder bezain itsusi hartan, euriak hodeitzarra hezeten zuen, lurra busti ordez.

Bada, ezinezko herri hartan, aitaita Paulinok festarako deia egin zuen behinola, herri inausi hura josteko zazpi maratilen atea irekitzeko giltza aurkitu zuelakoan. Jaia jai, haserre zeukan andrea, amama Regina. Reginak zioen hausnarketarako egin behar zela dei, jairako baino: zehazteko, elkartu beharrekoa zertarako eta nola elkartu.

Festa eta hausnarketa aitzaki, ika-mika eta matraka ederra jaio zen etxe hartan. “Ez haiz nirekin ezer adosteko gai, Regina”. “Adostu hirekin, nork ezer? Nahiago, mando bera birritan erosi Zumarragako ferian!”.

AITONAREN BRINDISA. Etxean larri, baina aurrera egin zuen Paulinok festarekin: banderak eskegi ziren, orkestrak kontratatu, pregoiak idatzi, tabernak ireki... Jendea elkartu zen, erruz. Zazpi lurraldetan bereizitako herri hartan, Pazko-egun handian egin zen, ba, festa.

Gertakari zoriontsua izan nahi zuen ekitaldiak: eritasunaren osteko esnekatilu beroaren modukoa, edo elurtza bitarteko hostopil gozoaren antzerakoa. Anis-tantoarekin hasi zuten aitaitak-eta egun handia, zainak esnatu eta harrotzeko.

Eta horrela, urtero ospatu zen festa. Inausitako lurraldeen zazpi ordezkariak bat egiten zuten frontoian, plazan, hamaiketakoan eta bazkalondoan. Norgehiagoka politik ikusten ziren han, alderdietako eta sindikatuetako buruzagien artean. Zortzidun adigarriak jotzen zituzten txistulariek, borroka politikoetatik urrun.

Bertso eta bertso artean, halako batean,



INIGO AZKONA

mikrofonora hurbildu, edalontzia jaso eta lau haizetara bota zuen aitonak: “Lagunak, Zazpitegiko Estatu Batuak sortu behar ditugu”.

AMONAREN TXILARRA. Reginak eta Paulinok aspaldi erabakia zuten nor bere aldetik joatea lotara, eta nor bere aldetik erositetara, jaietara, oporretara... Horrelaxe bizi zuten, bizi, Paulinok eta Reginak beren artekoa.

Pazko-goiz batean, amonak isiltasuna hamaika pusketatan hautsi, eta esan egin zuen irradian ezen, festa hura molde huts eta ohitura zaharkitu bihurtua zela. Hitzak hitz, hezurrik gabeko errutina iheskor bilakatua zela hura guztia. Funtsezkoa bazterturik egiten zela jai-edo hura.

Goizean hori, eta eguerdian mendi-itzulia egitera atera zen Regina. Aspalditxoan, txilarretako txantxangorriarekin lake-tua zen amama. Harekin izaten

zituen elkarrizketa luzeak, txoria itzultzen zenean bere zereginetatik: urruneko printze-printzesen ezteguetatik nahiz hurbileko neska-mutikoen pilota-partidetatik.

Egun hartan, ez zekien Reginak nola barrua hustu, nola esan eta zelan adierazi erraetan sufrezko garrak eragiten zizkion hura. Esan nahi zion txoriari ez zuela ikusten zertarako Zazpitegiko Estatu Batuen kalapita hura guztia...

Baina, txoriak igarri eta, amonak ahoa ireki orduko, lumadunak esan zion gizakiari: “Euskal herria piz badadi, euskarak piztuko du; milikeriak eta koipekeriak dira beste guztiak, jakina; baina, euskarak ere aberriak behar ditu, izan horiek Hirutegi, Zazpitegi ala Hamartegi”.

Kresala eta otea usaintzen diren muino batetik, han ikusten du Reginak Paulino, plazatik gora datorrela, ikurriñaxal moduan jantzita... ■

Pazko-goiz batean, amonak isiltasuna hamaika pusketatan hautsi, eta esan egin zuen irradian ezen, festa hura molde huts eta ohitura zaharkitu bihurtua zela. Hitzak hitz, hezurrik gabeko errutina iheskor bilakatua zela hura guztia



irudia:

Antton Olariaga



BERTSO BERRIAK

Uxue Alberdi

Konplize ditut eta...



ANDONI OTAMENDI

I

Emakume zuzenak,
okerrak, kirtanak,
moja txintxoak eta
zerrama irtenak,
itsusiak, politak,
atletak, herrenak:
konplize ditut eta
maite ditut denak.

III

Ama onak ta txarrak,
ama ez direnak,
lurrera jausi arte
mozkortzen onenak
ta umeen merienda
usaina dutenak:
konplize ditut eta
maite ditut denak.

V

Markesaren alabak,
neskame gizenak,
printzesak ta sorginak,
ogroak, sirenak,
Maritxuak, Bartolo
itxura dutenak:
konplize ditut eta
maite ditut denak.

II

Langileak, alferrak,
lanik ez dutenak,
tuntunak, mediokreak,
klaseko lehenak,
ale desegokiak,
andre txit gorenak:
konplize ditut eta
maite ditut denak.

IV

Lotsatiak, ausartak
argalak, gizenak,
iletsuak, soil-soilak,
marimutilenak,
katemeak, gorilak
panterak, zezenak:
konplize ditut eta
maite ditut denak.

VI

Lehen munduko emeak,
kapitalistenak,
lur usaia daukaten
andre indigenak,
zuri, gorri, horiak,
beltzetan beltzenak:
konplize ditut eta
maite ditut denak.



DOINUA: Argira sortu nintzen



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaiera

Urban Sketchers

Mundua koadernoan kabitzen da

Paisaiak, koadernoak eta Internet, hiru osagai mugimendu bat definitzeko. Artistek euren kaieretan egindako lanak inoiz baino bizkorrago zabaltzen dira gaur egun sarearen bidez. Urban Sketchers mugimenduak lan horiei marko bat eman die.

GORKA BEREZIARTUA

IKUSITAKOA momentuan bertan koadernoan marraztea; gero eskaneatu, eta Interneten erakustea. Hori da, pintzel lodiarekin esanda, Urban Sketchers mugimenduaren funtsa. Momentuan eta lekuan marraztutako planeta osoko eszenak aurki daitezke sarean eta honelako artelan guztiak biltzeko asmoarekin sortutako webgune bat ere badago, www.urbansketchers.org helbidean. Handik atera dugu artista hauen printzipioak biltzen dituen zortzi puntuko manifestua:

- 1.- Tokian marrazten dugu, barnean ala kanpoan, ikusten duguna zuzenean islatuz.
- 2.- Gure marrazkiek gure inguruko istorioa kontatzen dute, bizi gareen eta bidaiatzen dugun tokietakoa.
- 3.- Marraztean, toki eta une jakin bat islatzen dugu.
- 4.- Ikusten ditugun eszenekin leialak gara.
- 5.- Estilo ezberdintasuna ospatzen dugu, eta edozein tresna eta euskarri erabiltzen dugu.
- 6.- Elkarri laguntzen diogu eta taldean marrazten.
- 7.- Gure marrazkiak sarean elkarbanatzen ditugu.
- 8.- Mundua marrazkiz marrazki erakusten dugu.

2007an hasi zen mugimendua indarra hartzen, argazkiak partekatzeko Flickr webgunean hasieran, eta irabazi asmorik gabeko erakunde gisa gero. Lekuko marrazkien balio artistikoa nabarmendu nahi dute partaideek, istorioak kontatzeko erabilgarri direla erakutsi, jendea marraztera animatu eta jada ari direnak elkarrekin harremanetan jarri. Otsailean *The art of urban sketching: drawing on location around the world* liburua plaza-



UNAI GOIEASKOETXEA ARRONATEGI



UNAI GOIEASKOETXEA ARRONATEGI



RUSH DRAWINGS



TASZANA

New Yorkeko eraikinak edo Moskuko tabernak; trenak hartutako paisaia, beharginen lana edo protesta kanpaldia. Berdin dio zer, momentuan ikusitakoa koadernoan marraztuz arte bihurtzea da Urban Sketchers mugimenduaren funtsa.

ratu zen, ildo honetan lan egiten duten artis-
tanen antologia.

Mundu osoko jendearen marrazkien artean bila, artistetako bat Bilbon bizi dela jabetu gara: Unai Goieaskoetxea Arronategi txikitatik aritu da marrazkigintzan eta Bordelen Arte Ederrak ikasten hastean garatu zuen zaletasuna modu profesionalagoan. Artistek euren lanak elkartrukatzeko zutuztela ikusi zuen Interneteko foroetan eta lotura batekin bestera jauzi eginez iritsi zen Urban Sketchersera. Ez da artista plastikoz bakarrik osatutako komunitatea, arkitektoak, diseinatzaileak, web garatzaileak... “Batzuek proiektzio profesionala ematen diote eta beste batzuentzat afizioa da. Nire lanek, adibidez, ez daukate copyrightik, libreak dira; eta ez dut nire lana saltzen. Inestigazio iturria bakarrik da, esperimentu bat”. www.basquesketcher.com blogean ikus daitezke inestigazio horrek orain arte eman dizkion fruituak —berak utzi dizkigu erreportaje honetako lehen orrialdeko Bilboko irudiak ere—.

Korronte bi antzematen ditu Goieaskoetxeak marrazkigintza mota honetan. Batetik, errealitatea adierazteko bestelako moduak

**Korronte bi antzematen dira
Urban Sketchers mugimenduaren
baitan: koadernoko marrazkiak
bitarteko gisa ulertzen dituztenak,
batetik; eta irudi horiek
helburutzat dituztenak, bestetik**

bilatzen dituztenak leudeke bere ustez. Beste multzoa berriz, marraztea jarduera erromantiko gisa hartzen dutenena litzateke —“eta oso sana iruditzen zait hori ere”, zehaztu du, zalantzarik gera ez dadin—.

Baina bada alderik. Batzuentzat, koadernoko marrazki horiek dira azken helburua. “Ni ez

naiz erabat sartzen Urban Sketchersen filosofiaren barruan, gauza batzuk konpartitzen ditudan arren. Baina pentsatzen dut bestelako helburuak egon daitezkeela, sakonagoak-edo”.

Marrazkietan politika

Ikuspuntu baten isla den heinean, edozein artelanek dauka egilearen arrastoa, bere kezka eta iritziak jasotzen ditu zuzenean edo zeharka. Eta horrek obra handiagoentzat balio badu, berdin balio du koadernoetako marrazkiontzat ere; eszena bat marraztea ez baita ekintza inuzentea, baditu bestelako inplikazioak, autoreak aitortu edo ez.

Goieaskoetxearen blogeko ataletako batek “Gatazka” du izena: “Beti jotzen duzu egoinean batera eta nire lanetan Euskal Herriko

JANICE IN BROOKLYN



THOMAS THORSPECKEN



egoera politikoa islatzen da, oso hurbiletik ukitzen gaituen gaia delako. Gatazka marrazteko ideia etorri zitzaidan, deskubritu nuenan blogarien artean bazeudela batzuk hau plataforma gisa erabiltzen zutenak. Euren herrian gertatzen diren gauzen berri ematen dute, agian deserosoak izaten diren gaiak, politikoki zuzenak ez direnak”.

Nina Johansson suediarra aipatu du, hura izan zelako aurrenekoetakoa *squatter* edo okupa mugimenduari buruzko irudiak bere blogean (www.ninajohansson.se) plazaratzen. Badira gehiago: murrizketen kontrako manifestazioak



WIL FREEBORN

irudikatzen dituzten koadernoak edo Occupy Glasgow kanpaldikoak erraz aurkitu ditugu. Eta Goieaskoetxeak, bere marrazkiekin, indar polizialen presentzia edo Kukutzaren kontrako indarkeria salatu ditu, besteak beste.

Derrigorrez figuratiboa?

Manifestuko laugarren puntuaz galdetu diogu Goieaskoetxeari, ikusitako eszenarekin leial izate horrek marrazki figuratiboak egitera derrigortzen ote duen jakin nahian. “Nik ere alderdi horretan kontraesanak ikusten ditut” azaldu du, “baina uste dut ez dela literalki ulertu behar. Gure inguruan dagoena ahalik eta fidelen figuratzen saiatzea esan nahi du nire ustez; baina klaro, inguruan dauden elementuekin egiten dituzun hautapenak beti dira oso subjektiboak, nahiz eta marrazketaren arauak errespetatu”. Praktika honek produkzio arinaren afera, irudiak biltzeko metodoa, birplanetatzen duela uste du artista bizkaitarrak. Urban Sketchers oinarrietako bat da, argazki batetik abiatuta lanik ez egitea. “Uste dut horregatik jarri dutela laugarren puntu hori zeren gero, lan batzuk ikusten dituzunean, jabetzen zara oso abstraktuak direla”.

Lanaren izaera gorabehera, bat-bateko marrazkion bidez inoiz baino errazago bihurtu da artisten eboluzioa jarraitzea. Internet arte galeria erraldoia da eta artistaren figura “demokratizatzen” lagun dezake edonork bere lana erraz erakutsi ahal izateak. Baina lan analogikoak digitalizatzean zerbait galtzen dela uste du Goieaskoetxeak, “enkapsulatu” egiten direla marrazkiak. “Ordenagailuko kolore sistema ez da berdina, argitasuna ez da berdina...”. Problema horri aurre egiteko, Urban Sketcherseko kideek erakusketak antolatzen dituzte, jendeari koadernoak eskutan hartzen uzteko. Ez legoke gaizki Euskal Herriko sketcher-ek ere elkar hartu eta horretarako aukera eskaintzea. ■



Liburuak

KRITIKA

Goitik behera

Helduen literatura

Igor Estankona

1984AN JAIOA, eta hala ere heriotza sano presente baten erretratua egiten du Ione Gorostartzuk *Des egiten* honen hasierako orrialdeetan. Halako larridura bat sartu zait, erasan egin dit hasierako poemen indarrak, ikusiz zein natural hitz egiten duen ulertu ezin denaren gainean, zein zoragarri deskribatzen dituen akabera eta bizirik gaudenean gertatzen zaizkigun beste heriotza batzuk: agurrak, adintzea, ohea goizaldean.

Poesiak soilik lor dezake hori; gudan dagoena eta inon ez dagoena deskribatzea. Oso hurbil dago idazlea bere errailetatik, eta beraz irakurlearengandik. Begitandu zait liburu bat pertsonala eta humanoa, garbia, zarata eta artificio alferrikakorik gabea eta, azalduko dudanez, epeltxo aukeran.

Poema bakoitzaren amaiera, bereziki zaindua liburu honetan bertsorik sakonenetan lez, laztan bat edo kolperik bat-batekoena da: "Labazko ilea/ sugarrezko azkazalak/ lo kuluxkan baina bizi-bizirik, Etna". Eta hain zuzen sumendia irudikatuz, 31. orrialdean, liburuak beste



Des egiten.
Ione Gorostartzu.
Elkar.
96 orrialde. 13 euro.

norako bat hartzen du indarrrik galdu barik. Iratzarri egiten da ahotsa, biztu idazkera. Antitesia, hitz-jokoa, paradoxa... eta imajinatu ditzakegun figura literario guztiak oharkabea eta fineziaz konbinatzen ditu Gorostartzuk. Berez-berez edan, eta ondoren ere, ezpain-miazkatu egiten dira hainbat pieza, luma aberatsaren seinale. Adimenarekin idatzi arren eta teknika hotzean leundu arren, fisikoak eta errealeak dira irudietako asko: "loturik nago -zuengana-/ txekorra sokamuturrera bezala".

Idazleak esana da bizitzako etapa ez hain luze batean, nahiko era inpultsiboan eta soltean idatzitako olerkien bilduma dela hau, eta badu, benetan ere, inkontzientzia eta amets puntu bat. Maitasuna purua da, eta gorrotoa ere bai. Zalantza, kontraesan, duda eta ahulguneak agerian uzten ditu. Eta ahulguneek ari garela hain justu, esango nuke erritmoari eusteko zailtasunak ere badituela diskurtsoak, errepikapeneta eta hoskidetasunean lar oinarritua. "Hotza da negua / hotza azken hatsa/ azken hotsa". Heriotzaren gai errepikakorrera eta introspektziora itzultzen da liburuak azken zatian, atrebitu ez balitz lez aurrera egiten, ahots propioari erantzuten. Idazle eskolako beldurrek eta gurasokeriek zerikusia izango dute behar bada -oraindik horrelakorik, idazle izaten ikastea posible dela pentsatzea!-. Irrikaz itxarongo diot nik liburuan barruntatzen den ahotsari, lehertzen denean: sentiarazi egin dit behintzat, aspaldiko partez. ■



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Puntu bakar batean elkartzen diren ertzak.
Sharon Stoner.
Autoekoizpena.
Iraupena: 47'32". 10 euro.

Stoner ertz bat duen power-trio borobila

OÑATIKO HIRUKOTEA bueltan da lan berriarekin; beraien ibilbideko hirugarren lan luzea. Maketan stoner pisutsua lantzen hasi baziren ere, berehala azaldu zuten soinu berezi horretatik erabat aldendu gabe, askoz irekiagoak direla. Eta ez hori bakarrik, power-trio formula nahikoa eta gehiago izan daitekeela erakusten dute lan landu eta zuzeneko bortitz bakoitzean. Iban Yaniz lagunarekin Oñatin bertan beraien kabuz grabatu duten disko

honetan bost minutu inguruko kanta batu dituzte, giroa, erritmo aldaketak, indarra eta irudimena barra-barra dituztenak. Garapen handiko abestiak dira, baina tarte oso melodikoak ere badituztenak; eta ahotsak, oraingoan ere, distira berezia du. Ondo gordetako altxorra da, gezurra badirudi ere oraindik jende askok ezagutzen ez duena.

www.sharonstoner.com

Iñigo Ibarrodo - Sharon Stoner

«Gure ustez abesti 'normalagoak' sartu ditugu, estruktura konbentzionalagoekin»

Puntu bakar batean elkartzen diren ertzak. Zer da zuentzat gaur egun taldea?

Taldea musika sortu eta jotzeko dugun beharra asetzeko bideetako bat da. Aspaldidanik ezagutzen diren hiru lagun-min elkartzen dituen puntua, anaitzen gaituena.

Nire ustez orain arteko disko melodiko eta aldi berean arriskatuena egin duzue.

Ez dugu horrela ikusten. Aurreko bi diskoetan bezala lan egin dugu, melodiei garrantzia berdina emanez. Lelodun abestiak gus-tatzen zaizkigu. Abesti gehienek bost minututik gora badute ere, gure ustez abesti "normalagoak" sartu ditugu, estruktura konbentzionalagoekin.

Zer esanahi dauka zuentzat stonerak gaur egun?

Ez diogu uko egiten stonerrari, baina izenean badaramagu ere, stoner rock talde bat baino gehiago



gara. Gure eragin nagusienetakoa da, baina musika mota asko entzuten dugu eta taldea horren guztia- ren emaitza da.

Nolako esperientzia izan da diskoa zuen kabuz grabatzea?

Ibanek egin duen lehen disko luzea izanik, emaitza borobila da. Esperientzia guztiz aberasgarria izan da, errepikatze modukoa. Guk egiteak abestien beste perspektiba bat eman digu eta etxe ondoan grabatzeak erosotasuna.

Iñigo, disko honetan ahotsa gehiago landu duzu?

Ez dugu ezer berezirik egin: lokalean abestien hezur musikala egin, ahotsak konposatu, abestiak entseatu eta grabatzera sartu aurretik bakoitzak abestien konponketak egin ditu.

"Benetazko gizakien heriotzak sortutako engainuzko hilobiak". Arantzazuko pira-

mide-dorreez ari zarete? Inguruko gauza eta esperientziek inspiratzen zaituztete edo Bosforora joaten zarete mentalki?

Inguruko istorioak aurkezteko erabiltzen ditugun egoera edo tokiak dira. Metaforak edo urrun gelditzen zaizkigun toki edo pertsonak erabil ditzakegu. Agian etorkizunean aipatuko ditugu Arantzazuko dorreak edo Araotzeko baso berdeak gure abestietan, nork daki. ■



Ezpalak

JON TORNER

Euskal unibertsitatearen aldeko Arabatakada, maiatzaren 11n

ALBERTO CABELLO



Jeimo Turk Band,
2010. edizioko
Arabatakadan

‘EUSKAL HERRIAK EUSKAL UNIBERTSITATEA’ lelopean egingo da aurtengo Arabatakada jaialdia Gasteizen, maiatzaren 11n. Plater nagusi moduan, Gose, Hesian, Tximeleta, EH Sukarra, Betagarri eta Kaotiko taldeen kontzertuak izango dira Mendizabalan. “Unibertsitateak herritarren euskalduntzeari erantzuteko, justizia soziala lortzeko, ingurumenarekiko begirunea izango duen lurralde antolaketa bat bultzatzeko, jendarte eredu patriarkala irauli eta parekidetasuna lortzeko, hezkuntza jendarte eraldaketarako agente aktibo bilakatzeko, gure herriaren egituraketa soziopolitikoan laguntzeko...izan behar du eta horretan gabiltza” adierazi dute jaialdiaren antolatzaileek. Egun osoko egitarauari ikasleen arteko olinpiadek emango diote hasiera, 10:30ean, EHUren campusean. Informazio gehiago: www.arabatakada.org.

Iruñeko peñak, San Fermin eredu herrikoiago baten alde

IRUÑEKO peñetako gazteek antolatuta, Gazte Eguna egingo da apirilaren 14an Nafarroako hiriburuan. Festa eta aldarrikapena uztartuko dituen ekimenaren bidez, Udalak bultzaturiko San Fermin-en eredu salatuko dute Irugazpe kolektiboan bildutakoek. Eredu ofizialak jaien “komertzializazioa” sustatu duela diote, eta herri izaera galdu egin dela. Izaera hori berreskuratzea, peñetako gazteak aktibatzea eta beste kolektibo batzuekiko harremanak bultzatzea du helburu, besteren artean, Irugazpe kolektiboak. Apirilaren 14ko egitarauari hainbat peñatan egingo diren hamarretakoek emango diote hasiera. Ondoren, 12:30ean, Alde Zaharra zeharkatuko duen kalejira abiatuko da. Poteoa, bazkaria eta umeentzako jolasak ere izango dira. Gauean, bestalde, Alegria peñan Marianitoz blai, Garraxi, Skalfrio eta Akatu taldeek joko dute.

Jimmy Cobb 83

urteko bateria jotzaile estatubatuarra jasoko du Donostiako Jazzaldia saria. Bera da Miles Davisen *Kind of Blue* disko historikoan parte hartu



UNTERFAHRT.DE

zutenetatik bizirik dagoen bakarra. Halaber, uztailaren 20an kontzertua eskainiko du Victoria Eugenia antzokian. Jazzaldian izango diren beste musikari batzuk: Neneh Cherry & The Thing, Spectrum Road, Hasier Oleaga-Cantus Caterva, Mari Kvien Brunvoll, Josetxo Goia-Arribé, Bobby McFerrin, Melody Gardot, Madeleine Peyroux, Sharon Jones, Jamaican Legends, Marc Ribot, Ray Gelato eta Peter Evans.

Kukubiltxo

konpainiak kontsumoaren inguruko gogoeta egiten duen *Oilo hilak* obra mutua estreinatu du. “Maskara jolasaren bidez kontsumo beharrak pertsona zer egoeretan jar dezakeen irudikatu eta parodiatu nahi dugu, umore klabea”, azaldu dute taldeko kideek. Thomas Rascher-ek eta Nicol Wolf-ek zuzendu dute *Oilo hilak*, eta Marifeli Etxeandia, Ainhoa Alberdi, Maria Alonso, Iurgi Etxebarria eta Josu Camara dira aktoreak.

EUSKO JAURLARITZA



Artium arte garai-kideko Gasteizko museoak 2002ko apirilaren 26an ireki zituen ateak. 10. urteurrenaren harira, hainbat ekimen egingo dira museoan. Apirila-

ren 26an museoak ateak irekiko ditu, eta Fernando Castro arte kritikariak hitzaldia emango du, *Denbora eta premia (Guernica)* erakusketaren inguruan. Ekainaren 15ean, bestalde, McEnroe taldeak kontzertua eskainiko du. Urrian hiru erakusketa inauguratuko dira, *Haritik tiratu* izenburupean, eta museoaren bilduma bultzatu duten hiru lagun omenduko dituzte: Cayetano Ezkerra, Pascual Jover eta Pedro San Cristobal. Orotara 16 ekitaldi antolatu ditu Artiumek. Daniel Castillejo Artiumeko zuzendariak azaldu duenez, hamar urtean milioi bat bisitari pasa dira musetiko, eta 3.000 ekimen baino gehiago antolatu dituzte. Bestalde, museoaren bilduma 3.000 obrak baino gehiagok osatzen dute.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Bonba semiotikoa

Electroclass. Zuzendaria eta gidoilaria: María Ruido.
Ekoizlea: Consonni. 52 minutu. Euskal Herria, 2011.

DOKUMENTALA ez den dokumentala, ikusle arruntok ohituta gauden ikus-entzunezko konbentzioak hankaz gora jartzen dituen obra da María Ruidoren *Electroclass*. Zazpi minutuko zazpi piezaz osatua, ETB3n ikusi ahal izan nuen joan den astean —lehenago Zinebitik ere pasa zen—. Eskertzekoa iruditu zitzaidan telebista publikoak horrelakoak erakusteko arriskua hartzea.

Eta arriskua diot, ez baita lan eroso, ez ikuslearentzat, dauzkan berezitasun formalengatik; ezta ETBri eskaintzen dion begiratu kritikoarengatik ere: azken hiru hamarkadetan Euskal Telebistan eskainitako irudiekin egindako dokumentala da, baina edizioak, artxiboko irudiak jarrita dauden hurrenkerak, bideoa eta audioa konbinatzean egindako hautuek... Telebis-taren ohiko diskurtsoa zalantzan jartzen dute.



Bilbo hiri industrial izatetik zerbitzuetan oinarritutako metropoli bihurtzerainoko prozesua ikusiko dugu; horren gainean telebistak kontatu duenarekin egindako remixa da pelikula. Adibide bat jartzearen, Iñaki Lopez aurkezlearen off-eko ahotsak Euskaldunako istiluak gaur egun pentsaezinak direla dio eta Kukutza ixtearen aurkako protestak agertzen dira ekranean.

Nahasketa ez da batere xaloa, beraz. Baina filma ez da kosta ahala kosta bultzatutako eraldaketa kapitalistaren salaketa esplizitua ere. Ikuslea modu sotilean eramaten du prozesu hori bestelako begiz ikustera. *Electroclass* bonba semiotikoa da.



Hamaika
ikusteko, bizitzeko



Nazioa eskura
www.hamaika.tv

Ihesi

Testua eta argazkiak:
OLAIA RAZKIN

Euskal Herria ezagutuz:
Usurbil (Gipuzkoa)



Zaharrak berri

Zaharrenek erakartzen dute bisitariaren arreta guztia. Usurbilgo balorerik preziatuenak dira, herriaren altxorak, orain mende batzuetako xarmadun baserri eta jauregiak.

Zaharberrituta daude gehienak, baina beren balio historikoa, Ondare Kultural izendapena jasotzerainokoa, ez da oharkabea pasatzen. Udalerrian barrena, auzoz auzo ibiliz topatuko ditugu eraikuntza ikusgarri horiek.

USURBILGO KASKOAN EZ EZIK, udal-erri osoan topa genitzake baserri eta bestelako eraikuntza eder ugari. Kale Nagusian jalgi da San Salvador eliza, arkupe deigarri eta kanpai-dorre garaiarekin. Talaia paregabea dirudi, herrian nabarmen. Bere aldamenean dago Saroe jauregia, XVII. mendean eraikitako

barroko estiloko jauregi bikaina. Fatxada landua du, apaindua, balkoi, leiho, armari ikusgarri eta sarrerako bi arku dotoreekin. Lortegi ederra igartzen zaio atzealdean; ezkerrean, berriz, Ondasun Kultural izatea aitortzen dion plaketoa dago. Harro. Ez da gutxiagorako, Gipuzkoan bere estiloko

eraikuntzen artean luxuzkoenetakoa baita Saroe.

Elizaren aurrealdeko plazatik igaro behar da Usurbilgo arkitektura tradizionalenaz gozatzeko. Sailkapen horren barruan kokatu daiteke usurbildarrek *Potxoenea* ezizenez ezagutzen duten etxea, jatorriz Arriagaenea. Kale-baserri txikia izan

Artzabal jauregia, XVIII. mendeko baserri-monumentua.





PEDRO TAPIAS/BASKIMAGEN



Goian, ezkerrean: Arrillagaenea, usurbildarrek Potxoenea ezizenez ezagutzen duten etxea. Eskuinean, Saroe jauregia, barroko estiloko eraikina. Eta lerro hauen ezkerretan, Ibarrola Haundi dolare baserria.

Eusko Jaurilaritzaren Kultura Sailak. Artzabal XVIII. mendeko eraikina da, bere garaikoen artean aipagarrirenetakoa. Egun, Gure Pakea jubila-tuen egoitza dago bertan.

Kalezaharreranzko bideari jarraituz, mendian gora artaldetik artaldera jauzi eginez, Ibarrola Haundi baserrira iritsiko gara. Donostiako kostaldeko bista ederrez gozatzeko parada dago bertan. Baserria bakar-bakarrik zegoen lehen, baina egun Ibarrola Txiki nekazaritza-turismo gunea dauka aldamenean. Ibarrola Haundi XVI. mendean zaharberri-tutako dolare baserria da, inguruo-tako baserririk zaharrena. XIV. mendean herria sortu zuten etxee-takoa ere bada. Eraiki zen garaiko neurriak eta egitura ia osoa manten-tzen ditu, eta monumentu izendatu dute duela gutxi.

Herrigunetik haratago

Oria ibaia zeharkatuz, Usurbilgo beste muturrera, Urdaigako auzo-ra, abiatu behar da XV. mendeko beste eraikuntza bat ikusteko. Ez da erraz aurkitzen, baina inguruko baserriren batean galdetuz gero, edonork ezagutzen du haranaren erdian dagoen harribitxia. San Estebango ermitaren magalean, Leizekalde parkearen ondoan dagoen jauregi hau jentilek egina dela zioten zaharrek, eta gaur oraindik horixe sinisten dute hain zahar ez direnek ere. Lau horma sendo ditu, 1,10 metroko lodiera-

koak. Oso leiho gutxi ditu, eta txikiak gainera. Hau ere eraberritua izan denez, beste leiho batzuk ireki dizkiote eraikinari, baina ikus daiteke oraindik Iparraldeko fatxadetan, bigarren solairuan, dagoen leiho trilobulatu bat. Hormak XV. mendean bukaeran egin bazituzten ere, barruko egiturak galdu egin zituen, beharbada sute edo suntsitze batengatik. Gaur duen zurezko egitura XIX. mendekoa da. Ondasun kultural gisa kalifikatzeko hasierako txostena egina dauka.

Herrigunetik bi kilometrorara dago Aginaga auzoa, eta han, Aitzondoaren magalean, Oria ibaira begira, Usurbilgo baserri ederrenetakoa, Arrillagaundi (ziurtatu ezazue txakur zaintzaileak lotuta daudela). XVI. mendeko baserria da eta Ondasun Kultural izendatu-tako monumentua. Zurezko egitura bikaina dauka, elementu guztiak zenbaki erromatarrez markatuta. *Año 1740*, irakur daiteke ganbaran. Duela zortzi urte berritu zituen familiak etxaurrea eta teilatua, hasiera bateko itxura berreskuratzeko asmoz. Gaur, Arrillagaundin baserri tradizionalaren jarduera mantentzen da. ■

Usurbilgo baserri buruzko informazio gehiago *Usurbilgo baserriak eta baserriarrak* liburuan. Webgunea ere badu: www.usurbil.net/baserriak.html.




zen, lurrik gabekoa. Karkaba estu batek banatzen du Elizaren hormatik. Eraberritutako eraikina da eta Udalak Kultur Etxe bihurtu du orain gutxi. Eraikin bitxia da, iragana eta oraina, tradizioa eta modernitatea bikain uztartzen dituen. Dema plazara begira dagoen etxaurreri betiko itxura mantendu diote, aurpegi garbiketa sakona egin ostean; atzealdea berriz, arkitektura minimalistaz jantzi dute.

Landa lurretan barrena

Hiribildua atzean utzita, Kalezaharreran –Belmonte auzoan, Usurbilgo jatorrizko hiribilduan– bidean, Artzabal baserri-monumentuarekin egingo dugu topo, parke eder baten erdian. Itzelezko obra egin zioten 2008an, baina jatorrizko egurrezko egitura eta materialak mantentzen ditu. Beheko solairuan ezkaratz polita dauka, Usurbilen gaur irekia gelditzen den bakarra. Horren balioa aintzat hartuz monumentu izendatu du

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarrizen umorea

Bodologoak

Bodologoak bakarrizketa saioa Tolosan eman behar zuten ostiral ilunabarrean, gizon bat Leidor antzokiaren inguruan dagoen fruta-dendara sartu zen:

- Mesedez, salduko al zenizkidakere geratzen zaizkizun tomate ustel guztiak?
- Tomate ustelak? Zer dela eta? Zu ere Pagadiren saiora al zoaz, edo?
- Ez! Pagadi ni naiz!



Soluzioa

	A	B				E	K	O
A	R	O	Z			E	Z	E
M	U	K	I			K	L	E
Z	A	M	A	I		G	O	I
D	T	R	A	K	E	A	Z	A
Z	A	I	Z	E	R	U	P	E
		A	B	A	O	P	R	E
S	A	S	O	I	T	S	I	S
T	A	T	E	R	I	A	K	A
E	R	T	U	Z	L	U	R	K
I	T	S	U	K	A	L	O	G
P	I	F	U	R	S	I	A	I



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1
Zumartegi industrialdea
☎ 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Txipiroi erraldoien begi erraldoiak, harrapariengandik ihes egiteko arma

AZKEN ALDI HONETAN leku batean baino gehiagotan arrantzatu dituzte txipiroi erraldoiak. Oso handiak izateaz gain, badute, gorputz atalen artean, bereziki erraldoia den bat: begia. 27 zentimetroko begiak izan ditzakete, eta begi-niniak bederatzizentimetrokoak.

Zertarako behar ditu horrelako begi handiak 500 metroko sakoneran bizi den animalia batek? Zientzialariak aspalditik dabilta galdera horri erantzun nahian. Elikagaia topatzearekin zerikusirik izango zuela susmoa zegoen, baina azkenean alderantziz pentsatuta aurkitu dute erantzuna, hau da, txipiroiek harrapariengandik ihes egiteko baliatzen dituzte beren begi handiak; kaxaloteengandik ihes egiteko, hain zuzen ere.


Begi handiei esker, eta planktonak emititzen duen argitasuna baliatuz, txipiroiek 150 metrora ikus ditzakete kaxaloteak. Hala ere, kaxaloteek 200 metrora dauden harrapakinak detektatu ditzakete, radarra erabilia. Borroka interesgarria, ezta?



Higgs-en bosoia aurkitzeko lasterketa

60KO HAMARKADAN, Peter Higgs fisikari britainiarrak esan zuen partikula elementalen artean beste guztien jatorria izango zen partikula bat existitu behar zela, eta bosoi deitu zion. Oraindik ez da frogatu halakorik dagoenik. Zientziaren argotean "Jaungoikoaren partikula" ere esaten zaio bosoiari.

Azken aldian, CERNeko ikerketa asko argitara ematen ari dira hedabideetan. Oraintxe puri-purian dagoen gaia argiaren abiadura baino azkarra-
go mugitzen omen diren neutrinoena da, baina horretaz eztabaidatzen den bitartean, CERNek esan du Higgs-en bosoiaren lehen aztarnak aurkitu dituela. Ez da ahaztu behar horixe dela, hain justu, 1.800 milioi euro kostatu den LHC partikula-azeleragailuaren helburu nagusietakoa. Bitartean, gauza bera lortu nahian dabilta AEBetan, Tevatron azeleragailuaren bitartez. Bateko eta besteko zientzialariek diote ez direla elkarrekin lehian ari, lankidetzan baizik, baina...



Peter Higgs.



Sherwood Rowland hil da

Sherwood Rowland, Nobel saridun estatubatuarra, ozono geruzaren mehetzean klorofluorokarbonatuek zuten eragina iragarri zuen joan den mendeko 70eko hamarkadan. Hasieran guztien mesprezua jaso bazuen ere, hamarkada bat geroago arestian aipatu substantzien debekua ezarri zen mundu osoan.

<http://ttiki.com/35852> (Ingeleseaz)

Arratoiak gizakien parekoak dira erabakiak hartzeko orduan

New Yorkeko Cold Spring Harbor laborategiko Anne Churchland ikerlariaren arabera, hainbat iturri sententialetako informazioan oinarrituta arratoiek hartutako erabakiak eta gizakiak hartuko litzuketak oso antzekoak dira.

<http://ttiki.com/35853> (Gaztelaniaz)

Gizaki mota ezezagun baten aztarnak aurkitu dituzte Txinan

Ikertzaile talde txinatar-australiar batek orain 12.000 urte inguru bizi izan zen hominido baten fosilak topatu ditu Txinan. Badirudi hominido ezezagun horrek lurra partekatu zuela *Homo sapiens*-ekin, baina galdera ugari dago oraindik argitzeke.

<http://ttiki.com/35854> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Laritza

FOSIL SOILTZAT HARTUA ZEN itxaropenaren zuhaitza, *Ginkgo biloba*, aurkitu, ezagutzera eman eta zabaldu zuena Engelbert Kaempfer (1651-1716) alemana izan zen. Bi mende geroago Armand David ezpeletarrak esploratuko zituen lurretatik igaroz, Eurasia tzarra mendebaldetik ekialdera pasa eta bueltan hark ekarritako informazioa izan da mendetan hango berri iturri nagusia, Japoniakoa batik bat. 1712an argitaratu zuen *Amoenitatum Exoticarum* liburuan hango medikuntza (akupuntura, moxiaren errekuntza...) eta bertako landarediaren azalpen zabala ematen du. Tartean, besteak beste, tearen landarea eta bere familiako kamelia mordo bat deskribatu, marraztu eta aditzera eman zuen.

Teutoi honen lana ez zen makala izan eta sekula ez galtzeko moduko aldarera igoa da botanikan. Landare mordoxka batek bere izena darama. Batzuk Kaempferia generoan eta gehienek espeziean: *Rhus kaempferi*, *Berberis kaempferi*, *Aristolochia kaempferi*, *Ligularia kaempferi*, *Iris kaempferi*, *Catalpa kaempferi*, *Rhododendron kaempferi*, *Vitis kaempferi* eta abar. Berak izendatutako landareen izenek Kaempfer laburdura daramate bukaran. Ez da ez bere izena berehalakoan ahaztuko...

Pinu zuria edo laritza ekarri dit gogora alemanak, tartekoa baitu *Larix kaempferi* izen sinonimoa duen benetako *Pseudolarix kaempferi*. Alertzea ere esaten zaio maiz konifero horri. Geurean gero eta urriagoa, goi mendietako magal hotzenetan topa daiteke oraindik sailen bat. Udaberriak ikusgarri azalduko du laster: bere hosto-berritzearen berde distiratsua zumarraren (*Ulmus* sp.) loraldiarekin soilik pareka daiteke. Udazkenean, hostoaren agurrean da, baina, politena: hori laranja koloreko. Aspaldi lurreratutako hosto haiek ekarri dizkit gogora oraingoxeko udaberri berri honek, izerdi berriaren bultzadizoak azken hostoak



MATTHIEU SONTAG-CC BY SA

Laritz edo alertzea, *Pseudolarix kaempferi*.

bota baititu. Badira negu osoan hostoei egoskor eusten dieten zuhaitzak, baina datorren hosto berriak zaharra eraisten du. Udaberriko orbela, udazken azkena. Orbelaren lagun mina den haizean sartu naiz eta euria zalaparta arinean birrinbili-barranbalaka dakarrela sumatu dut.



636

Ez dakit zer dela eta izenbururako zenbaki hau hautatu dudan; 42 edo 40 edo 14,36 edo 816.829 edo 2.000 edo besteren bat izan baitzitekeen... "Tuleko Zuhaitzaz" ari naiz: Tule, Oaxaca, Mexiko.

Taxodium mucronatum ale bat da, Monctezuma altzifrea. Bertakoek nahuatl hizkuntzako *ahuehuete* hitzaz deitzen dute "uretako zuhaitz zaharra". Ezagutzen diren zuhaitz potoloenen artean da, 14,36 metroko diametroa duen enborra baitu, eta 40 metro garai da. 636 tonako pisua duela jotzen da. 2.000 urte inguru dituela uste da. Bertakoentzat sakratua da eta gure hagintaritzan han altzifretza da.



L O R E D E N D A

☎ 948 225 179
Kale Nagusia, 70 · Iruña

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Kleopatraren sudurra motzagoa izan balitz...

ALEXANDRIA (EGIPTO) K.a. 30.EKO ABUZTUAREN 12A. Kleopatra VII.a Filopator Egiptoko azken faraoia hil zen. Hurrengo 2.000 urteetan emakume seduzitzailearen paradigma izan da, eta bere erakarpin indarraren gakoa, sudurra. Hala, XVII. mendean, Blaise Pascal filosofo frantziarrak zera esan zuen: “Kleopatraren sudurra motzagoa izan balitz, mundua oso bestelakoa litzateke”.

Neba Ptolemeoren aurka borrokan ari zela, Kleopatrak –edo haren sudurrak– Julio Zesar seduzitu zuen, jeneralak gerra zibilean parte hartzea lortu zuen eta, horri esker, Egiptoko tronua berreskuratu zuen. Ondoren, Marko Antonio ere limurtu zuen, eta erresumari eutsi zion. Baina Oktavio haren sudurra ez zitzaion gustatu, nonbait, eta Egipto erromatar probintzia bihurtu zuen.

Baina nolakoa zen Kleopatraren sudur ahalguztiduna? Hainbat adituk bere denbora baliotsua galdera horri erantzuten erabiltzea erabaki du. Kleopatraren hilobia ez dute aurkitu eta, beraz, haren irudiak baino ezin dituzte aztertu. Egiptoar estiloan egindako irudi idealizatuak ez dira fidagarriak, eta, horregatik, sinesgarritasun handiagoa eman diete estilo greziarrean –Kleopatraren dinastia helenistikoa zen– egindako txanponak, esaterako, hazpegi gogorra du erreginak, eta sudur luzea. Ez dirudi zinematik saldu digun erregina ederrarekin bat datorrenik; begira, bestela, Liz Taylor eta Vivien Leigh

aktoreen sudurrei. Greziar edo erromatar artelanei erreparatuta, garai hartako edertasun kanonei ere ez die erantzuten. Egia da txanponak ez zutela pertsonaien benetako itxura zertan jaso, eta ohikoa zela arbasoen ezaugarriak biltzen zituzten erretratu sinbolikoak egitea. Zenbait adituen arabera, Kleopatraren erretratuek aitaren aurpegiera jasotzen dute (erreginaren tituluko *filopator* horrek “aita maite duena” esan nahi du).



Finean, ez dakigu Kleopatraren sudurra nolakoa zen. Eta zer? Azken faraoia hil eta 100 bat urtera Plutarkok luze idatzi zuen Kleopatrari buruz: zazpi hizkuntza zekizkiela jaso zuen, eta literatura, musika, zientzia politikoak, matematika, astronomia eta medikuntza irakatsi zizkiotela. Manera fin eta gozoak omen zituen, eta ahots erakargarria. Hondamen ekonomikoan zegoen erresumak gora egin zuen haren erabakiei esker, eta garaiko diplomazialari bikainenetakoa izan zen, erromatarren konkista atzeratu bai, baina geldiaraztea lortu ez zuen arren. “Haren edertasun paregabea barrukoa zen”, idatzi zuen Plutarkok, “eta eragiten zuen lilura ez zen berehalakoa”. Haren sudurra ez zuen aipatu ere egin historialari greziarrak. Baina mendeen –eta mentalitateen– poderioz, emakume haren adimen bikaina edertasun bihurtu zen, eta edertasuna, sudur. Kleopatraren sudurrak ez zuen historia aldatu. Sudurraren atzean zuenak, agian, bai.



Arrastoak

Delosko antzokia zaharberrituko dute

KRISIALDI EKONOMIKO orokorra gogor astintzen ari da Grezia. Hala, herrialde horren ondare klasiko bikaina babes-teko aurrekontuak asko murriztu dituzte azken urteetan. Baina tarteka berri onik ere bada alde horretati: berriki Greziako Kultura eta Turismo Ministerioak Delos uharteko antzokia (K.a 314-250) zaharberritzeko proiektua onartu du. Legendak dio Delos Apolo jainkoaren jaioterria zela, eta Atenasko Unibertsitateak egindako ikerketa baten arabera, antzoki horren *orchestra* Mediterraneoko gunerik distiratsue-na da. Edo izan beharko luke, egun egoera tamalgarrian baitago, higituta eta landarediak janda.

Zaharberritze proiektuak 1,5 milioi euroko aurrekontua du eta, arduradunen esanetan, ez da xahupentzat jo behar, inbertsiontzat baizik. Delosko antzoki berriak –eta distiratsuak– turistak erakarriko dituela espero baitute.



Delosko antzoki zaharra gaur egun, sasiz, harri soltez eta hondakinez betea.

WALLING-CC BY SA

Iñaki Uribe Burgoa

HABEko zuzendaria

«HABE fosilizatuta bezala zegoen»

Plan estrategikoa egin zuen HABEk iaz. Euskaltegi pribatuak finantzaketa egonkor eske dira. Ikasle kopuruak behera egingo duela aurreikusi dute eta merkatu berriak aurkitu beharko dira. Eskaerei eta aldaketei nola aurre egingo dien azaldu digu zuzendariak.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkiak: Dani Blanco



“Euskaltegiek partaidetza handiagoa eta finantzaketa egonkorra nahi dituztela esan digute”.

HABEk 2011ko irailean plan estrategikoa aurkeztu zuen. Zer nabarmen-
duko zenuke?

Inportanteena plan estrategikoa bera planteatzea izan da. 2008an 25 urte bete zituen HABEk. Urte

horietan guztietan ez da inoiz plan estrategikorik egin.

Zergatik egin duzue plan estrategikoa?

Erakundea fosilizatuta bezala zegoela ikusi genuen, dinamika oso

zaharra zuen, beno dinamikarik ia ez zuela. Ez genuen ikusten HABEk euskalduntze prozesua aldatzeko halako gogorik zuenik. Bestetik, gobernu berriak asmo hori zeukan departamentu guztietan.

rako. 30 urtean beste batzuk agintzen egon ondoren, pentsatu nahi zen zer den ona eta zer txarra, onarekin jarraitzeko eta txarra baztertzeko. Erakunde honekin gauza bera.

Nola egin duzue plana?

Partaidetza handia izan da; barruko teknikariek, euskaltegiek, irakasleek eta ikasleek hartu dute parte. Denei galdetu zaie zer aldatuko luketen, hori izan da abiapuntua. Adibidez, irakasleei galdetu zitzaion ea nola ikusten zuten haien egoera, etorkizuna, HABErekiko harremana nolakoa zen, diru-laguntzatera iristeko araudia egokitu behar ote zen. Zeren HABEren araudia oso zaharra da.

"Ikasle gazteen kopuruak behera egingo duen bezala, 45 urtetik gorakoena hazten ari da"

Zer esan nahi duzu araudia zaharra dela diozunean?

Besteak beste, HABE dena agintzen ari zela ikusi genuen, dena erregulatzen eta arautzen euskaltegiekiko. Hori ikusita euskaltegietara joan gara eta irakasleek berehala esan dute gauza horrela dela, beraiek ez dutela parte-hartze handirik. Partaidetza handiagoa eta finantzaketa egonkorra nahi dituztela esan digute.

Zer esan nahi du finantzaketa egonkorrak?

Udal euskaltegiak funtzionarioak dira, nolabait esateko. Euskaltegi pribatuetakoa irakasleak ez daude egoera horretan eta irakasle mota bien artean dagoen diferentzia orekatzeko eskatu digute. Irakasleak egonkortasunik ez badu, errekonozimendu sozialik ez badu, pare bat urte egin eta alde egiten du, bere esperientzia kanpora eramaten du. Kaltegarria da irakaskuntzaren zat.

Plan estrategikoa egiteko euskaltegiekin harremanetan izan zineten. Plana eta gero ere, joan den urteko



"Orain arteko on-line sistema zaharkituta zegoen, orain arte zegoen Boga sistema ordezkatu egingo dugu".

hondarretik, bilerak egiten segitzen duzue euskaltegiekin. Zer eskatu dizute?

Bada bi kontu: ikasleei akreditazioak ematerakoan euskaltegiek protagonismo gehiago izatea eta finantzaketa egonkorra.

Nola gauza daiteke euskaltegien protagonismo handiagoa akreditazioan?

Orain arte HABEk egiten zituen azterketak, eta berak egiaztatu. Euskaltegiek akreditazioan parte hartzea eskatu digute eta hala egingo dugu hemendik aurrera. Haiek azterketak egin eta balora-

zioak proposatuko dizkigute eta ikusten badugu euskaltegi horrek HABEren jarraibideak betetzen dituela balorazio horiek ontzat emango ditugu. Adibidez, irakurmena eta entzumena neurtzeko azterketen balorazioetan %83ko kointzidentzia daukagu [ikasleak euskaltegiak prestatutako azterketa egin ohi du eta ondoren azterketa ofiziala dator HABEren eskutik]. Beraz, zertarako jarraituko dugu biok gauza bera egiten? Euskaltegiek egiaztatzen dutenean guk baieztatu egingo dugu. Euskaltegi guztiei emango diegu aukera.

Finantzaketari dagokionez zer eskatu dute?

Gai zaila da. Guri ere aurrekontua murriztu zaigu, doiketak egin behar izan ditugu euskaltegiei iazko kopuru bera emateko.

Urte batekoa salba daiteke, baina euskaltegiek aurrera begirako kezka izango dute.

Lehendakaria oso kezkatuta zegoen eta HABEko, HPSko, Kultura Saila eta euskaltegiatiko ordezkariak deitu gintuen. HABEren historian ez da inoiz gertatu euskaltegiatiko ordezkariak deitzea. Irakasleek haien arazoak azaldu zituzten eta lehendakariak esan zuen konprenitzen zuela arazoa, eta guri agindu zigun nolabaiteko egonkortasuna estudiatzea. Euskaltegiei proposamen bat egin diegu, haien iritziz beharbada ez da egokiena, baina ateak irekita dauzkagu, edozein proposamen entzuteko prest gaude.

HABEk zer proposatu du?

Urte batzuetara ikasleen %30 gutxiago izango dugula kalkulatu dugu. %30a kenduta geratzen den ikasle kopuruari erantzuteko behar den irakasleria hartu dugu kontuan. Kopuru horri soldata ziurtatzea eta funtzionamendurako beharrezko diru-laguntzak ematea da helburua.

Beraz, oraingoak baino irakasle gutxiagorekin egin duzue kalkulua.

Euskaltegi pribatuetan irakasle denak ez dira finkoak, aldi baterako kontratua dutenak %30 inguru izan ohi dira. %70a mantenduko bagenu... Orain hori dena eztabaidatuko dugu euskaltegiekin.

Esan duzu datozen urteetan ikasle kopuruak behera egingo duela. Zer aurreikusten duzue?

Euskaltegiek egin duten lana oso ona izan da, jende asko euskaldun-

du dute eta gero eta jende gehiago dago euskalduntzeko beharrik gabe. Ikastoletatik datorren jende guztia ere, ez nahiko genukeen mailan beharbada, baina euskarata dator. Eta akreditazioak [euskara-gaitasun agiriak] lortzetik salbuetsiko duen dekretua momentu batetik bestera jarriko da martxan. Horrek eragina izango du. Administrazioako langileekin gauza bera ari da gertatzen, gero eta gutxiago doaz euskaltegira gero eta gehiago ari direlako euskalduntzen, eta bestetik, egoera ekonomikoagatik langile gutxiago sartzen da administrazioan.

Dekretuak nola eragingo du?

Jendea hasi da horrelakoak esaten: "Itxaron egingo dut, alaba ez dut matrikulatuko azterketa prestatzeko. Dekretua atera zain egongo naiz".

"Euskaltegi pribatuetan irakasle denak ez dira finkoak, aldi baterako kontratua dutenak %30 inguru izan ohi dira. %70a mantenduko bagenu..."

Gero eta ikasle gutxiago, gero eta ordu gutxiagoz.

Plan estrategikoan ikasleek ikastaro trinkoak eta luzeak murriztea eskatu dute. Jendeak gero eta gutxiago dedikatu nahi du horretara. On-line ikastaroek, beharbada, ikasgelako ikastorduak murrizten lagunduko digute. Bide batez, orain arteko on-line sistema zaharkituta zegoen, orain arte zegoen Boga sistema ordezkatu egingo dugu.

Ikasleak gero eta zaharragoak dira.

Gazteen kopuruak behera egingo

duen bezala, 45 urtetik gorakoena hazten ari da. Problema da adin batetik aurrera oso zaila dela hizkuntza ikastea. Ondo aztertu behar da. Batzuetan pentsatzen dugu alferrikakoa dela irakaskuntza mota hori. Administrazioan ere 45 urtetik gorakoei ez zaie euskara perfilik eskatzen.

Baina ikasle hori ere kontuan hartu beharko da...

Bai, bai. Aukera ezin diozu ukatu. 200-300 baldin badira eta batek ikasten baldin badu, bada bat hori baloratu egin beharko da.

Gazteak euskaldundu direla-eta euskaltegiatiko ikasle kopurua murrizten baldin bada, zein izango da ikasle mota berria?

Langabezian dauden gazteak. Lana bilatzeaz kezkatuta daude, Lanbide eta horrelako erakundeetan daude eta hortik erasoko dugu. Lanbide modukoek eskaintzen dituzten ikastaroen artean euskara ikasteko aukera izatea nahi dugu. Gaur egun euskara jakiteak asko laguntzen du lana bilatzen. Merkatu interesgarria izan daiteke 20-25 urtetik 40-45 urteko langabetuen multzoa. Ideia hori lantzen ari gara.

Bestelako merkaturik?

Erabilera landu beharko da. Oraingoz HABEren araudiak ez digu esaten horrelako tipologiak lagundu behar direnik, baina egunen batean hortik jo beharko dugu ikasle bila; gauza bat gertatzen delako eta gertatuko delako: on-line sistemak arazo oso inportantea dauka, mintzapraktika gutxi egin daiteke. Euskaltegiak egokitu beharko dira mintzapraktika bereziki antolatzeko, barnetegiak oso inportanteak izango dira etorkizunean. ■



Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure!
artean!
euskaraz



BFA
DFB

Euroa

Ba al du desagertzeko arriskurik?

Europar eta mundu osoan egoera ekonomiko eta finantzarioa larria den garai honetan, zalanztan jarri da hainbat herrialderen kaudimena, eta ondorioz, baita Europar Batasunaren iraupena eta euroaren etorkizuna ere. Ba al du euroak lehertzeko arriskurik?

DANIEL UDALAITZ

GALDERA FIKZIO HUTSA izan zitekeen artikulu honen lerroburua. Ez da, ordea, hain zentzugabea, krisi ekonomiko eta finantzarioak eragin dituen ondorioak ikusita, batez ere Europan. Jakina da Europar Batasuneko herrialde batzuek kaudimen gabezia dutela –batez ere Greziak–, eta egunero esaten digute, enpresek ez ezik, Europako herrialde batzuek ere hondoa jotzeko arriskua dutela. Horrek, bistan denez, ondorio izugarriak ditu familia eta langileengan, lana eta eskubide sozialak galtzen baitituzte.

Testuinguru horretan, ez da hain arraroa pentsatzea euroak jarraituko ote duen edota desagertu egingo den. Hain zuzen ere, Gaindegia ekonomia eta gizarte garapenerako behategiaren *2011 Txostena* (oraindik paperean argitaratu gabea, baina www.gaindegia.org webgunean irakurgai) galdera horri erantzuna ematen saiatu da. Bertan, Joseba Barandiaran ekonomialariak horren inguruko hausnarketa egin du *Eta, euroa lehertuko balitz, zer?* izeneko artikuluan. Bertatik ateratako ondorioa aurreratzen dizuegu: errazagoa da Europa birmoldatzea euroa baztertzea baino, errazagoa da euroa txertatzea euroa desagerraraztea baino.

Teoriatik praktikara

Europar Batasuneko kide den herrialde batek aukera du, teoriarik, batasun horretatik irteteko; eta beraz, euroa uzteko. Herrialdeek euroan jarraituko dute,

betiere ikusten badute etorkizun hobeia izango dutela Euroguneko herrialde gisa, eurotik aterata baino –aldaketak ekarriko lituzkeen kostu guztiak kontuan hartuta, jakina–.

Indarrean dagoen legeriak ez du aurreikusten Euroguneko herrialde batek euroa uzteko modurik. Horrek ez du esan nahi ezinezkoa denik, noski, legeak egin eta aldatu egin daitezkeelako. Baina, edonola ere, oztopo juridiko asko daude horretarako. Bestalde, estatu kolpe bat ere gerta liteke, baina bide berri hori ere zaila izango litzateke. Eurotik ateratzea bideragarriagoa izango litzateke Alemaniarentzat, Grezia, Portugal, Italia edo Espainia bezalako periferiako herrialde batentzat baino, besteak beste moneta berri bat jaulki behar-ko baili-

tzateke... eta drakma berria, pezeta berria edo lira berria ezin izango lirateke marko berriarekin lehiatu.

Gainera, eurotik irteteak ekarriko lituzkeen zailtasun logistikoak ere kontuan hartu behar dira. Txanpon eta billete berriak jaulkitzea ez da lan erraza, milaka unitate behar baitira; eta hori nekez egin liteke ezkutuan. Bestalde, moneta sistema berriak ere onarpena izan behar du; eta onarpen hori lortzea ez da hain erraza. Izan ere, herrialde batek txanpon eta billeteak aldatzeko, beharrezkoa da biztanleriari publikoki azaltzea, nahasmendurik eta iruzurrik gerta ez dadin. Horretarako denbora eta publizitatea behar da, eta esan bezala, ez da erraza onarpen hori lor-



Errazagoa Europa birmoldatzea euroa baztertzea baino

Joseba Barandiaran ekonomialariaren arabera, errazagoa izango da Europa birmoldatzea euroa baztertzea baino. Berak dioenez, Europaren etsai komertzial nahiz politikoek irabaziko lukete gehien euroa lehertuko balitz. Bestalde, ekonomialari honek euroa jaulki aurretik moneta gune bateratu baten egokitasunera-ko ezarri ziren lau baldintzak gogorarazten dizkigu. Lehenengoa: batasuna, integrazio-komertzial handia duten ekonomien artekoa izatea, ekonomia irekiak izatea. Bigarrena: *shock* ekonomikoen eragina simetrikoa izatea oro har, hau da, gutxi izatea estatu bati kalte eta besteari mesede egiten dioten *shock* edo gertaerak. Horretarako, Barandiaranek dio herrialdeek merkataritza intrasektoriala izan behar dutela batez ere, sektoreen artekoa baino gehiago. Hirugarrena: lanaren mugikortasuna moneta batasune-ko lurraldean. Eta azkenik, laugarrena: federalismo fiskala.

Horiek dira moneta batasun eraginkorra lortzeko lau baldintzak. Une honetan betetzen al dira? Gaindegia artikulu egi-leak ez dio galdera horri erantzuten, baina euroa lehertuko ez den esperantza du. Errealitatean, berriz, Euroguneko hainbat herrialde-tan pentsa daiteke baldintza horiek ez direla betetzen. Beste kontu bat da Euroguneko herrialde batzuek euroa lehertzeko inte-resa izatea edo ez.

tzea. Horretaz guztiaz gain, makina txanponjaleak eta, oro har, diru fisi-koa erabiltzen duten makina eta gai-luak ere egokitu egin beharko lirate-ke, hala nola bidesariak, garraio publikoaren ordainlekuak, eta abar. Prozesu hori ez da merkea, ezta laburra ere.

Euroa uzteak oso bide arrisku-tsuan sartzea dakar berarekin, eta ziurgabetasuna sortuko luke. Barandiaranen ustez, txanpon berri batek nekez izango luke truke baliorik lehen unetik.

Moneta berria jaulkitzeko arrazoiak

Dena den, erraza da herrialde batek moneta berri bat jaulkitzeko izan ditzakeen arrazoiak identifikatzea. Joseba Barandiaranek batzuk deskribatzen ditu bere artikuluan. Behin herrialdeak bere txanpona debalutzeko ahalmena berreskuratu-takoan, lehiakortasuna irabaziko luke, atzera ere banku zentral buru-jabe bat izango luke eta, akaso, gerora hazkunde eta enplegua sor-tzeko aukera izango luke. Arazo larri bat dago, ordea: oso litekeena da herrialde hori, izan estatua, enpresak nahiz familiak, eurotan

—edo atzerriko beste txan-pon batean— zorpetuta ego-tea. Eta ez euren artean bakarrik, gerta liteke hiruga-rren hartzekodunekin ere zorpetuta egotea. Hala, “euren zorrak bikoiztu egin-go lirateke txanpon berriaren balio galerarekin. Hau da, zor horiek ordainezinak izango lirateke eta nazioarte-ko merkataritza harremanetan porrot egingo lukete, kaos juridiko eta ekonomiko galanta eragiteaz batera”.

Finantza ikuspuntutik, txanpon berria jaulkiko lukeen herrialdeak eta haren enpresek isolatuta gelditze-ko arriskua izango lukete. Egoera horrek oinarritzko nahiz luxuzko ondasunen eskasia ekar lezake, bereziki normalean inportatu litez-keen ondasunak: petrolio, jakiak, argindarra... Horrez gain, mugak ixteak eta kan-bio-kontrolak eraginda, estra-perloa berpiz-teko arriskua legoke. ■



VITORIA GASTEIZ

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

Gozatu euskaraz liburutegietan!

Gonbit-txartelak astebete lehenago

ABETXUKU

> Autopsiaren frogak

Hitzaldia: Koldo Izagirre

Apirilak 24, 19:30 (+14 urte)

ARANA

> Mamuak eta beste auzokide batzuk

Ipuin kontalaria: Nerea Ariznabarreta

Apirilak 25, 18:00 (5-8 urte)

IPARRALDE

> Kamishibai. Japoniako haurrentzako ipuinak

Ipuin kontalaria: Inés Bengoa

Apirilak 26, 18:00 (4-9 urte)

Liburuaren nazioarteko eguna

>> Liburuaren salmenta eta erakusketa

Apirilak 21 eta 22, Espainia plaza, 10:00-21:00

Arabako Liburu saltzaileen Elkarteak

>> Neuk ere irakurtzen dut

Hiru argazkilarik gonbidatuko gaituzte

argazkiak ateratzera marko original batean

irakurzaletasuna sustatzeko.

Apirilak 21, Gasteizko hainbat tokitan.

ATARIA

>> Lur planeta maite zaitut!

Ipuin eta elezahar kontaketa

Apirilak 22, 12:00, doakoa

Sarrerak lekua bete arte

KONTZERTUA

>> Berri txarrak

Martxoak 20, 21:00

JIMMY JAZZ GASTEIZ

XTRA CLUB!

>> Kaleko dantzaren erakustaldia

Oreka Dance taldeak emanda

Apirilak 20, 21 eta 22, 18:00-20:00

Lakuako Geko gazte Factory

>> Plazaola bide berdea

Ibilbidea bizikletaz

Apirilak 22, 09:00-18:00

EUSKARAZ BIZI EGUNA

Apirilak 21, Foru plaza

Maite dugun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

5.000 ikasletik gora bi eleko eskola publikoan

IRAILEAN Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan 5.000 ikasletik gora hasiko dira bi eleko erduan eskola publikoan. Iaz 4.781 ikasle matrikulatu ziren bi eleko erduan (euskara eta frantsesa) eta aurten 5.056. Eskola pribatu katolikoan iaz baino 100 ikasle gehiagok eman dute izena eredu horretan, 2.100ek. Seaskan 2.100 ikasle (iaz baino 150 gehiago) izango dira. Datu ofiziala 5.056 bada ere, zifra horrek ez ditu kontuan hartzen Seaskak 2 urterekin eskolatzten dituen haurrak. Bestalde, lehe-

nengo aldiz eskola publikoko ama eskolan, Miarritzen, euskara hutsez hasiko dira irakasten.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren errolda

DIPUTAZIOAK errolda osatu nahi du harekiko harremana euskara hutsean izan nahi duten norbanako, enpresa eta erakunde publikoekin. Erroldan izena ematen duenak, orain arte ele bitan jasotzen zuen informazioa euskara hutsean jasotzeko aukera izango du. Errentaren kanpaina baliatuko du Ogasun Sailak 400.000 gipuzkoarri galderra egiteko, eta Aldundiak

erantzun horiek baliatuko ditu beste sailetarako. Errenta aitortpenarekin batera egingo duten galderaren zain egon gabe, herritarrek aukera dute euskara hutsezko harremana ahalbidetuko duen erroldan izena emateko.

Ekimen berriaz galdetuta, ondoko erantzun du Zigor Etxeburua Euskara zuzendariak, *Garan* egin-dako elkarrizketan: “Euskarak ez ditu hizkuntza arrunt batek behar dituen tresna guztiak. Horregatik, sortu egin behar ditugu, eta testuinguru horretan kokatzen da errolda hau. Guk hizkuntza politika egiteko burujabetasuna behar dugu, askatasuna”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Korporatibismoa, bankarizazioaren alternatiba

Euskadiko Kutxak eta Ipar Kutxak elkarrekin kooperazio proiektua osatzeko “hizketaldi formalak” hasi dituztela iragarri zuten joan den astean. Integrazioa egiten bada, marka berria bigarren euskal finantza entitate handiena bihurtuko litzateke (25.303 milioi euroko aktiboak), Kutxabank-en atzetik (75.000 milioi euroko aktiboak). Espainiako Estatuko kreditu kooperatiben artean ere bigarren izango litzateke, Cajamar eta Caja Ruraletik oso tarte gutxira, 38.000 milioi euroko aktiboak baititu horien artean sortutako erakundeak. 1.375.000 bezero, 2.497 langile eta Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan (Aragoi, Errioxa, Gaztela eta Leon, Kantabria, Asturias eta Madril) sakabanatutako 451 bulego izango litzuke. Integrazioarekin, gainera, finantza erakundeen tamaina handitzeko Espainiako Bankuak sustatutako erasoaldi berrien aurrean blindatuko lirateke.

Egitasmo honetan garrantzitsuena da Euskal Herriko bi kreditu kooperatiba direla, eta biek euskal ekonomiaren sareari zerbitzua ematen diotela. Euskadiko Kutxa sare industrial eta komertzialari lotuago dago, eta Ipar Kutxak lehenengo sektorearekin ditu harreman gehien. Kooperatiben filosofia mantentzen badute —biak hartarako sortu baitziren—, etekin erraz eta indibidualista albo batera uzten badute, eta herri honekiko elkartasun konpromisoari eusten badiote, bankarizazioaren aurrean alternatiba izan liteke. Euskadiko Kutxak eta Ipar Kutxak hainbestetan aipatzen duten bokazio sozialak ea are eta indar gehiago hartzen duen, eta krisiak eragindako sare sozialari, komertzialari eta lehenengo sektoreari laguntzen. Beren kreditu iturria azkar erion dadila —eta ez banku tradizionalena bezain garesti—, batez ere enpresa txiki, ertain eta baserritarrentzat. Kooperatibismoa bankarizazioaren aurrean benetako alternatiba dela frogatuko luke horrek.

Juan Mari Arregi



BAHEA

Euskara agiria lortzetik salbuetsita geratuko diren ikasleez Isabel Celaák Berriak esanak: “B1 maila aitortuko diegu DBH amaitzean, Euskara gaundituz gero. Ez dago akatserako lekurik. Egongo balitz, mobiolari eragin beharko genioke, atzera egin, eta pentsatu euskararen transmisioa ez dela eraginkorra izan herri honetan. Hori ezin dugu onartu, faltsua baita. Gure ikasleak euskaraz nahiko trebetasun garatuta irteten dira. PISA probetan hori agertzen da. Gure ikasleek ikasten dute euskara eta euskaraz. (...) Gure sisteman ondo funtzionatzen du euskarak”.

Andoni Urzelaik sustatu.comen esanak: “Hasteko eta behin, garbi dago hizkuntza ez duela borondateak efektibo bihurtzen. Borondateak maitekorragoa egingo du akaso, edo errespetagarriagoa, baina ez efektiboagoa. Hizkuntza baten eraginkortasuna espresuki hori bideratzeko egindako araudi batekin baino ezin da lortu. Erdara kaltetuz euskara diskriminatuko duen legedi ausart batekin, hain zuzen. Laguntza publikoak jasotzen dituzten hedabide erdaldunei euskara kuota serio batzuk exijituz, esaterako”.

Protesta, aldaketaren oinarri

ESPAINIAKO lan erreformak atzerapauso itzelak ekarriko dizkio langileari bere eskubideetan, hamarkada batzuk atzera egingo dela ez dago zalantzarik, eta apurka, hasiko gara nabaritzen. Kontua da zenbateko atzerakada izango den eta ezer egin ezean horrek noraino eraman gaitza-keen. Kontua da XXI. mendeko herrialde garatuetako langile klase zabal eta anitz horrek, zer egin behar duen bere eskubide eta lorpen ekonomikoei eusteko.

Horrek hausnarketa handi eta zabala eskatzen du, kapitalismoaren garapenarekin oso lotua dagoena. Bigarren mundu gerraren ondorengo kapitalismoaren bilakaerak ongizatearen gizartea ekarri zuen Europara, funtsean langile mugimenduaren bultzadagatik. Estatuak ekonomian eta aberastasunaren banaketan parte hartzea zen gizarte eredu horren oinarrietakoa.

Baina kapitalismoaren baitan, gutxiegi irabazten zutela uste zuten askok, eta XX. mendeko 70eko hamarkadaren amaieran eta 80koaren hasieran, neoliberalismoak gogor ekin zion bere ereduaren garapenari, eta haren zabalkundeak egungo krisi ekonomiko bortitza ekarri gaitu, krisi globala, baina batez ere munduko herrialde aberatsenei eragiten diena.

Bi ondorio handi ekarri ditu Thatcher-Reaganek bultzatutako kapitalismo basati hark: munduan aberatsenen eta txiroenen arteko zanga duela 30 urte baino handiagoa da gaur egun, eta herrialdeen baitan ere, oro har, talde aberatsenen eta txiroenen arteko desberdintasunak gero eta sakonagoak dira. NBEko garapen programek, herrialdeen arteko elkartasunak, elkarbizitza baloreak, zientziaren aurrerapenak... ezerk ez du lortu arrakala horiek txikitzerik, eta urtez urte handitzen jarraitzen dute,



2011 bukaerako Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundearen txosten batek argi erakusten zuen moduan.

TESTUINGURU horretan kokatu behar da krisitik ateratzeko hausnarketa estrategikoa eta epe laburrean bederen hiru plano garrantzitsutan garatu beharko da berau, gutxienez euskal herritarri dago-kionez. Lehen esparrua klaseen arteko harremana da, klasiko bat humanitatearen historian; hau da, gizartean sortzen den aberastasuna nola banatzen da ahalik eta modu berdintsuenenean?

Bigarrena, Europar Batasunaren eremua da, krisi honek hankaz gora jar dezakeena, bai bere mone-ta, eta baita bere egitura osoa ere; horrek euskal herritarrengan izan dezakeen eragina begi bistakoa da. Eta hirugarren planoak Espainia-Euskal Herriarena litzateke, une erabakigarriak bizi dituen, bai ETArekin aroaren amaieragatik, bai gero eta herritar gehiagoren ustez Espainiaren menpe jarraitzeak kalte egiten diolako euskal gizartearen garapen integralari, bereziki ekonomikoari.

29-KO GREBA hiruki horien erdigunean dator, PPren eraso bortitzari

erantzun guran. Azken honen jarrera oso argia da, disimulurik gabekoa: lan harremanen eremuan enpresariaren aldeko apustu argia egiten du; gizarte-ko aberastasunaren banaketari begira, aberatsenen aldekoa. Euskal Herriko ehunka enprestan hasi diren kaleratzeak ondo erakusten dute hori. Euskal enpresariaren ordezkariak pozarren dira, *malgusegurtasunaren* eredu deitzen diote; hizkuntza argiagoan esanda zera, enpresariak malgutasuna behar du, langilearen segurtasunarekin zer egin erabakitzeko.

Espainiako gobernuek, azken lau urteetan 130.000 milioi euroko laguntza jarri dute egunotan ikusten ari garen bankuen birmoldaketa gauzatzeko. Mariano Rajoyren Gobernuak, 2012 eta 2013 artean, gutxienez 55.000 milioi euro murriztuko ditu bere aurrekontuetatik Europako defizit jaitsiera aginduei jarraituz. Eta nondik kenduko du? Ez da gaitza irudikatzea: hezkuntza, osasuna, herritarren zerbitzuetatik, egiazko ekonomia laguntzeko zorrotik... Erreskate doinuak indarrez entzuten dira oster, eta batzuen ustez, Europako Banku Zentraletik Espainiako bankuetara bideratu den dirutza (%1eko interesa duten mailegu ospetsu horiek) moztarazutako erreskatea da.

Nola aldatu daiteke norabide suntsigarri hori? Nola aldatu, herritarren protestatik hasita ez bada? Eta horixe da greba orokorra oraingo, boterearen aurrean langile eta herritarrek protestarako duten tresnarik indartsuenetakoa. Hego Euskal Herrian martxoaren 29an azken urte luzetako greba orokor handiena ikusiko da, eta ez da azkena izango.



Gerra ez dago gizakion geneetan, 10.000 urte ditu

2009an Nobel saria hartzerakoan, Barack Obamak esan zuen: “Gerra beharrezkoa da batzuetan, eta hein batean gizakiaren sentimentuak adierazten ditu”. Hori gezurtatu nahi du John Horganek *The End of War* liburuarekin. Alegia, biologiari dagokionez, gizakia badela gerrazale bezain baketsua, gerra saihesten ahal dela.

JOHN HORGAN ZIENTZIA KAZETARIA da, *Scientific American* aldizkari famatu idazle aspalditik, BBC katearekin kolaboratzen du eta irakasle ere bai New Jerseyko (AEB) Hobokenen dagoen Stevens Teknologia Institutuan. Aurretik zientzia eta espiritualitatearen arteko loturez idatzia du. Otsail honetan plazaratu du *The End of War* (Gerraren akabera), gaiari buruz antropologiatik eta biologiari orain arte esandakoak laburbildu eta aztertuz. *Altnet* webgune aurrerazalerako Brad Jacobsonen elkarrizketatu du.

Horganek desegin nahi ditu gerraz nagusitu diren aurreiritziak: gizakiaren izakeran dagoela, betidanik egon dela jendea gerran, gure geneetan dagoela, gerrarik gabeko gizarterik ez dugula ezagutuko. “Liburua idatzi dut funtsean ikuspegi ezkor hori gaitzesteko”.

Gerraren antropologian arakatzuz, Horgan ohartzen da zientzialarien artean nagusi direla iritziz horretakoak. Alegia, gerra gizakia bezain zaharra dela, edo agian zaharragoa, txinpantzeekin daukagun asaba zaharrak ere erabili ahal izan zuela.

Ia denek diote talde bateko txinpantzeek elkar hartu eta beste taldekoak erasotzen dituztela. Hori egiaztatzea emateko plazaratu den literatura zientifikoa arakatuta, Horgan ohartu da dozena bat kasu

baizik ez daudela frogatuta. Txinpantzeen eta gizakion gerra egiteko manierak berdintsuak direla dioen Richard Wranghamek berak argitzen omen du, gainera, oso gutxitan ikusitako jokabidea dela. Goriletan berezitua zen Jane Goodalrek iradoki zuen, bestalde, borrokarako jokabidea balitekeela berrikitan sortua izatea, gizakiak primateen bizilekuak asko estutu ondorengoak.

Azken urteotan modan jarri diren beste primateak bonoboak dira, jokabide askoz baketsuagoak famatu egin dituenak. “*Peacenik* [pazifista] jendeak maite ditu, batik bat gizakiak berez baketsuak eta abegikorrek direla uste duten *peacenikek*. Nik bonoboen ikerketa aipatzen dut txinpantzeen kontu horri aurre egiteko. Baina iruditzen zait alde batera utzi beharko genituzkeela txinpantze eta bonoboak, haien jokabideak oso berrikitan aldatuta izan daitezkeelako”.

Garrantzia handiagoa ematen dio Horganek arkeologiak dioenari. Eta arkeologoaren arabera, gerra duela 10.000 urte azaldu zen gizakien artean, munduan leku ezberdinetan, gero denetara zabaltzeko. Beraz, ez da hain sortu zaharra, aurretik asmatuak dira lanabesak, janak kuzinatzea, erlijoak, artea eta musika. Kultur berrikuntza gaztea da gerra.

Ron Avi argazkilariaren irudian soldadu serbiarrak ageri dira Bosniako hiriburu Sarajevoko aldirietan, 1992tik 1995era bitartean izandako gerran. Egia da Balkanetako liskar odoltsuetan ere eragin zutela geopolitikak eta interes ekonomikoek, baina zerk eraman zituen bortizkeria beldurgarri hartara Europaren bihotzean aski bizimodu erosoa zeukaten herritarrek? John Horganen hitzetan, ez du balio sarraskien errua talde barruko “ardi beltzei” edo “sagar ustelduei” egozteak, hobe da hitz egitea mailatutako saskikada osoaz. “Gerra da saskiko sagar guztiak usteltzea bezala. Piztuz gero, pertsona on, gizatiar eta zintzoak ere sarritan hasten dira jokatzeko munstroak bailiran, berek bestela nahita ere. Hori ez da berez dakarten zerbait. Ez daukate geneetan idatzirik. Jokabide hori gerrak berak piztuarazi die”.

Biologiaren ikuspegitik, gehienek diote jende populazio handiegiak sortu duela gerra, ura, ehizakia, lurra eta emakumeak eskuratzeko lehiak. Gaur borrokagai nagusia petrolioaren litzateke horren arabera. Baina Horganek uste du ideia honek ere badituela ahulguneak. Batzuetan soziopata karismadun bat gai da herri osoa gudura eramateko.

Txinpantze ala bonobo?

Iturburu baina gehiago, ordea, mekanika interesatzen zaio Horgan. Behin piztu denean, bere burua elikatzen duen dinamika abiarazten baitu. “Gerra ikusi behar dugu *meme* moduan [antropologian eta soziologian, *memea* da ideia eta praktika kulturalen oinarritzko unitate bat, pertsonen artean transmititu daitekeena], leku batean sortu denetik bere burua betikotzen duen ideia edo jokabidea iraunkor eta sakon errotua”.

Horrela sortzen dira guduak mendekuagatik, edo berdin etsaia-aren erasoari aurre hartzeko eraso prebentibo gisan. Batetik Iranen eta bestetik AEBen eta Israelen artean dabilen gerra hotsak gisa horretan esplikatzeko dituen Horganek.

Baina gerrak bere burua perpetuatzeko joera duen moduan, jen-



etsaiari, artilleriarekin, hegazkinetik bonbaka... eta azken aldian piloturik gabeko *drone*etatik. Baina horra bitxikeria: Nevadako base batetik bideojokuetan ari bailiran Afganistanen gizakiak kalitzen dituzten militarretako askok ere traumatizazio estresa nozitzen dute.

Gutxi dira lagun hurkoa garbituz gozatzen duten jendeak, baita gerretan ere, Horganek aipatu dituen ikerketen arabera %2. Gainerakoetatik askok sufritu egiten dute tiroka. Baina pertsonak denetara jartzen dira, eta odolera ere bai. *The Lucifer Effect* idatzi zuen Philip Zimbardok esperimentu bat egin zuen 1970eko hamarkadan Stanford unibertsitatean. *Stanford Prison Experiment* delakoan, bere ikasleetako batzuk preso izendatu zituen eta beste batzuk zaindari. Bigarren egunerako "zaindariak" sadismoz tratatzen zituzten "presoak"...

Gerra gizonezkoen aferra ote da? Alderantziz uste du Horganek, Sarah Blaffer Hardy antropologoari jarraituz, lehendik bakean bizi zen talde bat gerran sartzen denean, guduek aldatzen dituzte bai gizonen eta bai andreen rola. *Machokeriak* ondorioa dira.

Gerra eta bakea planteatzerakoan Horgan Gene Sharp soziologoaren jarraitzailea da. Mila bider idatzi da Sharpen ideiek eragin handia izan dutela azkenaldiko matxinada baketsuetan. Horganek ere uste du gerra ez dela soziopaten kontua. "Gizakiaren berezko agresibitateak adina garrantzia dauka gerraren aurrean jendeak amore emateak". ■



deek ere esan diezaioke "aski". Horganek hiru eredu nabarmendu ditu. Suitzak eta Suediak aspaldi erabaki zuten armada edukitzea bai, baina gehiago gerrarik ez egitea. Are maiteago du Horganek Costa Rica, zeinak 1940ko hamarkadan gerra zibil odoltsua nozitu zuen eta geroztik armada edukitzeari uko egin zion.

Costa Rica dago azken mende erdian munduko eskualderik biolentoena den Erdialdeko Amerikan, Nikaragua, Guatemala, Honduras eta El Salvadorren ondoan, eta bakean bizi da. Horregatik Horganek gaur uste du lehenbizi militarismoari eta gerrari egin behar zaie la uko eta demokrazia, askatasuna eta gainerakoak gero datozela.

Gizakia berez guduzailea dela? Dave Grossman koronelaren *On Killing* (Bestea hiltzeaz) liburua aipatu du Horganek. Grossmanek nabarmendu du, soldadu amerikarren jokabideak ikertuta, gizaki gehienek ez dutela inor hil nahi. II. Mundu Gerran demostratu zen infanteriako soldadu askok ez ziotela tiro egiten etsaiari, ez zuten hiltzeko gogorik.

Ikerketaren emaitzekin, AEBe-tako armadak entrenamenduak zorrotzu zituen. Koreako gerran eta batik bat Vietnamekoan soldaduek hobeto apuntatzen zioten etsaiari. Ordainetan, etxeratutakoan, traumatizazio estresak asko ugartu ziren. XXI. mendean lehen baino urrunagotik egiten zaio su



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Iñaki Martínez de Luna

Normalkuntzaren ARGI-itzalak

E

z da akats tipografikoa izenburua horrela idatzi izana, *V. Inkesta Soziolinguistikoa*ren balantze laburra baizik. Izan ere, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kaleratu berri duen ikerlanaren ondorioetako bat, hauxe da: “EAEn gero eta pertsona gehiagok erabiltzen du euskara eta gero eta gutxiago dira erdara hutsean aritzen direnak”. Horretan datza emaitza soziolinguistiko horien ikuspegi pozgarri eta itxaropentsua. Ea baikortasun hori berrestetik dagoen hurrengo hilabeteetan Soziolinguistika Klusterrak argitaratuko dituen kale-erabilerako datuekin. Horrela balitz, zorionekoak gu, euskaldun euskaltzaleak; zorionekoak gu denok, euskal herritarrok.

Botila erdi huts ikusi nahi duenak ere badu zeri erreparatu inkesta horretan, dudarik gabe, baina lerro hauen lehenengo zirriborroari ekiterakotan debekatu diot nire buruari hortik jotzea. Izan ere, burura etorri zait Komunikazioaren (h)egia blegean egiten zen galdera: Nolakoa ondorio afektiboa izango luke euskaltzaleengan eta besteengan euskarari buruzko berri onen ehunekoa handituko bagenu? Bai, euskaldun zintzoak zein euskalgintzak badute/badugu albiste baikorren beharra, urte askoko ahalegin eskergaren ordain.

Horregatik, galdera hori bihurtu dut lerro hauen zio. Izan ere, nago euskarari askoz gehiago lagunduko diola irribarre alaiak, asmo oneko imintzio ilunak baino. ARGI-itzalen tirabira horretan, ARGiak gehiago lagunduko digu aurrerapausoak ematen, itzalen iluntasunak baino.

Inkesta horren emaitzetan murgilduz gero, aurrerapausoen sendotasuna adierazten duten zenbait zantzu aurki daitezke: euskararen erabilerak gora egin izana toki-administrazioa eta osasun zerbitzuetako harremanetan; baita, banan-banan hartuta, EAEko hiru lurraldeetan



ITZIAR UGARTEMENDIA

ere. Era berean, ezagutzaren hedapena ere pozgarria da, erabilerarako ezinbesteko baldintza delako.

Aurrerapauso horiek onartu eta gero ekin beharko zaio/diogu gabezien inguruko hausnarketa egiteari, ez lehenago. Eta bistan da euskararen normalkuntzarako bidean badagoela/badugula zer zuzendu edo hobetu, besteak beste, zonalde euskaldunenetako erabilerak atzera egin izana edo familia mistoen herenak transmisioan huts egitea; baita prozesua sendotu eta azkartzeko aukerez hausnartzea ere.

Inkesta horren emaitzetatik harago badaude konpondu edo bir-bideratu beharreko beste alderdi batzuk ere euskararen eremuan. Horietako bat, euskaldunok pairatzen dugun bortizkeria sinbolikoa; alegia, inkontzienteki barneratu dugun erdal munduarekiko mendekotasuna. Adibideak, non-nahi: erdaldun (edo ia-euskaldun) bakar baten aurrean solaskide guztiek erdaraz jardutea; ezezagunei lehen hitza erdaraz egitea; hizpide garrantzitsuenetarako (medikua, lana, dirua...) erdarara pasatzea eta abar. Mendekotasun horretatik askatzeko eta portaera auto-suntsitzaile horiek iraultzeko zenbait baldintza objektibo zein subjektibo bete behar dira; adibidez: euskaldunen kopurua hedatzea; pairatzen dugun mendeko egoeraz euskaldunak jabetzea eta euskaraz egiteko konfiantza eta legitimitatea irabaztea. Kosta hala kosta, lehenbiziko baldintza hori badoa pixkanaka betetzen eta, hortaz, besteak ditugu orain lehentasun.


Baina, zuzendu beharreko alderdi horiek lortu denaren ARGItan aztertu behar da; alegia, prozesuaren baitako hobekuntza bezala, ez urteetako ahaleginak zalan-tzan errotik jartzen dituen kritika gisa. ■

Inkesta horren emaitzetatik harago
badaude konpondu edo bir-bideratu
beharreko beste alderdi batzuk ere
euskararen eremuan. Horietako bat,
euskaldunok pairatzen dugun
bortizkeria sinbolikoa



ASTE HONETAKO

zozketa



Atxaspi Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1



Tarpoon Urpekaritza

2 harpidedunentzat
"sur" saiorako
bina sarrera

Kirol portua, A lokala - 7
Getxo BIZKAIA

www.divetarpoon.com

2



Bilboko Euskal Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

3



Ruper Ordorikaren kantaldia

5 lagunentzat
bina sarrera

Maiatzak 12 - 22:00etan
USURBILGO
OIARDO KIROLDEGIAN

4



Kirolaz Badakit

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2315. Argia)

GAMETXO HOTELA

- Edorta Miranda Salbidegoitia (Leioa)

EKAINBERRI

- Juan Inazio Bereziartua Iraola (Lasarte-Oria)
- Patxi Xabier Gonzalez Sanz (Gasteiz)
- Gurutze Aiertzaguenara Aranzibia (Zaldibar)

JORGE OTEIZA FUNDazio MUSEOA

- Arantza Barrutiabengoa Heriz (Soraluze)
- Mila Apezetxea Loiarde (Hernani)
- Eneko Etxebarria Uriarte (Agurain)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Iñigo Gogenola Bilbao (Berriatua)
- Iñaki Biain Salaberria (Donostia)
- Iker Urkia Martinez De Lahidalga (Aretxabaleta)
- Miren Josune Ugarte Epelde (Bilbo)

ILLIMANI

- Hilario Berasatei Arrieta (Idiazabal)
- Arrate-aginagako Zaharren Egoitza (Usurbil)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Euskal Herrian ihesi

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko
egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria



Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi
erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko
lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

ihesi.com



argia
proiektua